



uk

34. zenbakia / 2002 azaroa

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta

HELBIBIDEA: Arnezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48990 GETXO
e-mail: ukaldizkaria@telefonica.net / Posta Kutxa 171
Tel: 94 491 13 37 / Fax: 94 491 58 31

ZUZENDARIA: Jokin Aspuru

ERREDAKZIOA: Unai Brea, Eunatze Serrano

FOTOGRAFIA BURUA: Asier Mentxaka

TESTUEN ORRAZKETA: Joseba Butron

KOLABORATZAILEAK: Bittor Egurola, Itsaso Arana, Gaizka Escudero, Xabier Bilbao, Urtzi Iglesias, Algortako Bertsolari Eskola, Iker Merchán, Esti Ezkerra, Gonzalo Iribarnegaray, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Lepoan Euskara Elkarte

MARRAZKILARIA: Gorka Vázquez

AHOLKULARI GRAFIKOA: Guillermo Almagia

PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Edorta Cachorro (94 491 13 37)

HARREMANAK: Gorka Orueta

FILMAZIOA: Argia / Inprimategia: GESTINGRAF



LEGE GORDAILUA: BI-1878-00

ISSN: 1576-6799

Osorik edo zatiz, makinaz zein informatikaz kopiatzea, baimen barik, erabat galarazirik dago

© Boluntzarreta

Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarteen Topaguneko partaidea da

	<p>Aldizkari honek Bizarra Lepoan Euskara Elkartearen dirulaguntza jasotzen du</p>	
<p>Itxasgane Etxea / Karitatea 1 94 491 43 57 / 48990 Algorta</p>		

	<p>GETXOKO UDALA</p>
<p>Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du</p>	

	<p>Leioako Udala</p>		<p>Aldizkari honek Berangoko Udalaren dirulaguntza jaso du</p>
<p>Aldizkari honek Leioako Udaleko Euskara Zerbitzuko dirulaguntza jaso du</p>		<p>VBRLN</p>	

	<p>Erandioko Udala</p>		<p>Berbots Erandion Euskaraz</p>
<p>Aldizkari honek Erandioko Udalaren dirulaguntza jasotzen du</p>		<p>Aldizkari honek Erandioko Berbots Euskaraz elkartearen laguntza jasotzen du</p>	

	<p>■ Bizkaiko Foru Aldundia ■</p>
<p>Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du</p>	

Behar-beharrezkoa

ditugu zuen

dirulaguntza

BBK2095 0121 10 91 02483676

Boluntzarreta

gugeu

Ale honetan

Azaroa, hau da, aza aroa, eta neguaren ataria. Eta urtaro goibel hau berri pozgarri batek alaitu digu: **Unai Elorriaga** gure kolaboratzaile ohiari sari garrantzitsu bat eman diote. Eta ez gaitu harritu, izan ere, guk aspaldian bagenekien euskaraz gauza ederrak idazten zituela. Unai bezala bertsozale handia den **Mikel Urdangarin** kantariak disko berria plazaratu du, eta lan berria –kasu honetan pelikula bat– estreinatu du **Alex de la Iglesia** bilbotarrak ere. *Marmitako western* bat dela dio berak. Plater goxo hau laguntzeko **txakolina** bezalakorik ez dago. Ardo alai hau ederto egiten duen **Ander Calvo** adituarekin egon ginen. Eta likidoekin jarraituz, gure eskualdea zeharkatu eta batzen duen ibaia, **Gobela**, zertan den jakin nahi izan dugu. Urrunago, Paris aldean ibili da **Iñigo Cámara** ale honetan gonbidatu dugun argazkilaria, eta Kroazian **Gonzalo Iribarnegaray** gure kronikagile ipurterrea. Jende gehiago ezagutu dugu, esaterako, **Ana Urrutia** telebistako eguraldi irargarlea, edota **Aitor Basabe** Bilboko Museoko jatetxeko burua...

Hau guztia eta jakina, gure ohizko atalak ere bai. Datorren hilabeteen gehiago!

UK-ko lantaldea

besteekesanak

“Munduko arazorik ikaragarriena giza sufrimenduarekiko axolagabekeria da”

Woody Allen (Zinegilea)

“20 urterekin partida txantxatalko dela pentsatzen duzu, eta 50ekin bigarren zatia amaitzeko 20 minutu falta direla konturatzen zara”

Quim Monzó (Idazlea)

“Zalantzak dituen eta bere buruari galderak egiten dizkiona doma ezina da”

Benito Lertxundi (Abeslaria)

Gutunak

KORREDOREA: BIDE BERRIAK, PROPOSAMEN ZAHARRAK

Ez zitzaidan gustatu aurreko UK-n agertu zen Korredorea izeneko autopistari buruzko erreportajea. Ondo iruditzen zait foru aldundiak daukan asmoei buruz informatzea, kasu honetan zehazki korredorearen 3. zatia egiteko daukan asmoei buruz, irakurleok horren berri izan dezagun. Baina lau orrialdeko erreportaje bat egiterakoan tamalgarría iruditzen zait elkarrizketatu bakarra Carlos Estefanía bezalako porlantzale bat izatea.

Kazetariak berak ere ez du, nire ustez, oso sarrera egokia egiten, gero eta auto gehiago daukagula baieztapen biribil bezain ukaezina egin ondoren, ahaztu egiten baitu zirkulazioa arintzeko gaur egun proposamen desberdinak eta anitzak daudela mahai gainean. Alde batetik betiko proposamen zaharra: auto gehiago dago, beraz errepide eta autobia gehiago egin behar dugu. Eta bestetik etorkizuneko proposamena, hau da: ezin gara eten-gabe “auto gehiago, beraz errepide gehiago, ondorioz auto gehiago, kutsadura gehiago, stress gehiago, gastu gehiago osasungintzan...” gurpil zoroa elikatzen ibili; beraz garraio eta mugikortasunaren inguruko kudeaketa politika bat egin dezagun. Hitz bitan, garapen eramangarría.

Gaur egun gertatzen ari dena zera da, administrazioak diskurtso gisa bere egiten duela “etorkizuneko proposamena”, geruza berdea eransten zaio azpiegitura politikari, kotxerik gabeko egunak antolatzen dira, baina praktikan, Estefaniak berak aitortzen duenez, frankismo garaiko azpiegitura eta garraio politika egiten jarraitzen dute. Garapen eramangarría “artxila motxila” moduko hitz magikoa bilakatzen ari da, praktikan betiko gauza bera egiten jarraitzeko. Bestetik, Berango inguruan egunero-egunero auto iladak pairatu behar dituen herritarrari korredorearen 3. zatiaren “onurak” azaltzea erraza da. Baina horrek izango duen eragina ezin da gutxietsi, “landa batzuk eta eukalipto baso bat baino ez” arinki esanez. Kurtxe auzoak, adibidez, zarataren eragin zuzena izango du betiko, Uribe Kostako Korredorearen 1. eta 2. zatiak Getxon zarata sorbururik handiena diren bezalaxe, udalak berak eskatutako ikerketetan argi azaltzen dena. Eta ingurugiroarekiko edo gizarte eredu osasungarriarekiko kalteak ez datoz inoiz alde bakarretik: Korredorea eta negozio inbiliariora eskutik doaz Uribe Kostan. Frankismo garaitik dator kontua. / **Christian Reinicke (Getxo)**

Okerrak zuzenduz: aurreko alean Berangoko ur biltegiak Pozozabalen zeudela esan genuen Albuma gure atalean. Gauza jakina da leku bi horiek elkarretik sano asao daudela.



[irudia]

Plaga? / Ederra, ezta? *Pampako lezka* dauka euskarazko izena, eta Hegoamerikatik dator. Bada, izaera beldurgarria ezkutatzen du bere edertasunaren itzalean; bertokoei ez die hazten uzten. Panpoxez mozorrotutako hiltzailea. / Argazkia: **Asier Mentxaka**

[plaza]

Iritzia

Unai Elorriaga idazle algortarrak eta aldizkari honetako kolaboratzailea izan denak Espainiako Literatur Sari Nazionala eskuratu berri du *SPrako Tranbia* bere lehenengo nobelarekin. Aitzakia hau hartuta, letrak maite dituzten eskualdeko emakumezko biri gogoeta bana eskatu diegu.

Lasaitasuna galdu gabe

Espainiako Literatur Sari Nazionala eskuratu ondoren

Unai Elorriagari gainera etorri zaiona ez da makala. Elkarrizketak, lan-
eskaintzak, teleshown baten protagonista izatea, kritikarien kritikak,
idazleen iritziak, batzuen poza, besteen errezeloa, ondo egin duela, ez
zuela aurkeztu behar...

Idazle guztiek lehenago edo beranduago hartu behar izaten
duten erabakia berari hartzea egokitu zaio orain, eta ez da samurra
zurrunbiloaren erdian hartzea.

Presio soziala nola barneratu erabakiaz ari naiz. Nola irentsi
entzundakoa eta entzundako horri noraino utziko zaion norabidea
baldintza dezan. Presioa, eskaera, espetatiba edo nahi moduan deitu,
kontua da inuzentzia galdu egiten dela, eta galduz gero zaila da
ezjakinarena egitea.

Orain mundu guztiak daki Unai Elorriaga idazlea dela, eta ez
da gauza bera norberak bere burua idazle ikustea, eta kolpean, mundu
guztiak ezagutzea idazle estatusa. Gure idazle handi batzuei dozenaka
urte kostatu zaie beren burua idazletzat jotzea. Liburuak egin bai,
egiten zituzten, baina hortik idazle izatera... tartea egon badagoela

esaten zuten. Pudorea zen. Edo superstizioa. Edo norberaren lanari
garrantzi handirik eman nahi ez izatea. Edo literatura handiarekiko
mirespen debotoa. Beste askorentzat, ordea, idazle izatea txikitako
ametsa izan da, betidaniko asmo ezkutu eta desiratua, eta lortu arte ez
dute amore eman.

Hotzean erraza da esatea kanpoko presioaren eragina ezdeusa
izango dela gure hurrengo lan literarioan, baina idaztea erabakiak
etengabe hartzea da: nor kontatu, zer esan, nola adierazi, nolako hitza
erabili, zein ikuspuntu eman honi, beste hari nolako nortasuna eman...
eta erabaki horietan guztietan iritzi publikoaren itzala nozitu egiten
dugu lepoan, beraren arnasa belarriaren atzean.

Unai gaindituko du presioa, ziur naiz. Eta lagungarria izango
zaio alboan izatea konfiantzako jendea, betiko lagunak, herrikideak,
UK-koak.

Besarkada bat! 4

Laura Mintegi (Idazlea eta irakaslea EHU)un

Merezi du irakurtzea

Argitasunez beterik eta irribarrez egin beharko genuke

Unairen erretratua. Trenean joan eta etorria egiten duenean, hitzaldi
batetik irteten denean, lagunduta zein bakarrik doanean, Unai
irribarretsu eta lasai agertzen da. Zergatik izango ote da? Beti ote dago
zoriontsu? Atzera egin eta orain dela hamabost urteko irudia
berreskuratzeko saioretan ere, han, ikasgelaren ezkerreko aldean,
hormatik hurbil kokatuta, bi begi bizi, aditasunez, batetik bestera
taldearen mugimendua xehe-xehe segitu guran ateratzen zaizkit. Ez du
detailerik galdu nahi. Pozik balego lez egiten du dena.

Arrazoi askogatik izango da horrelakoa bere aldartea, baina
irakurtzeak ere, seguruenik, poztasuna emango dio. Idazleak ondo
pasatzen du liburuen artean. Orrietan aurkitutakoarekin batzuetan
urruneraino bidaiatu du, Zortzi milakoen aldera akaso. Beste batzuetan,
berriz, hurbileko hirietan geratu da. Autore batzuk iraganera eraman
dute eta bizimodua ulertzeko beste modu batzuetara gerturatu da; beste
zenbaitekin bere barnean murgildu eta gizakiaren hondo-hondoko
galde-erantzunekin hausnartuko zuen. Etorkizun magikoak ere
batzuetan liburuen bidez aurreratuko zitzaizkion. Hitzen bitartez usain


gozoak eta kolore anitz, maitasuna, naturako atal zoragarriak, landareak
eta izaki txikiak ere ikustera ailegatuko zen, agian.

Merezi du irakurtzea. Bistan dago. Horretarako erraztasunak
era guztietakoak dira: badaude liburu lodi eta mitologikoak, goibel eta
mundua hankaz gora jartzen dutenak, hizkuntza askotan argitaratuak,
lirikoak, poliziakoak, emakumeek eginikoak, helduek idatziak eta
gazteen eskutik datozenak.

Momentu asko, leku ugari, postura franko hautatu daiteke
irakurtzeko. Kapituluaren arabera. Ia gehienetan atera dakiok egunari
tarteren bat kapituluetan aurreratzeko. Urtaro guztiak –euren lurrin,
argi, haize eta eurirekin– dira egokiak. Nolabaiteko lilura du
irakurtzeak. Idazleak sortzen dituen egoera eta pertsonaiak –Unairen
Lukas, Rosa, Marcos... kasurako– koloreak lo dagoen jendearen
ametsetan sartzen diren bezala, hein batean geureak egin eta barruan
geratzen zaizkigu. 4

Gotzone Agirre (Irakaslea Aixerrota institutuan)

[lehen]



[orain]



Iraganez doa denbora* beti / PANORAMIKA BIZKAIKO ZUBITIK

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

Abian da euskara plana

Iraileko osoko bilkuran onartu zen 2005era bitarteko **euskara** plangintza **udaletxerako**, inoiz ez bezalako adostasun mailaz. Herritarrei arreta eta gazteenekin **harremanak zaintzen ditu** batik bat

Udalerriko 25 zinegotzietatik 23k eman zioten baietza Getxoko Euskara Zerbitzuak diseinatutako euskara planari, horietatik batzuk kritiko agertzen diren arren. Edozelan be, abian dago honezkero udaletxeko langileei zuzen-zuzenean eragiten dien plangintza mardula; batez ere zenbait lanpostutan dihardutenei. Plana betetzeko epea 2005ean amaituko da.



Getxoko udaletxeko herritarrentzako harrera gunea

Euskara Zerbitzuko Irantzu Larrañaga eta Joxi Arakamarekin berba egin dugu Getxoko Udalaren Euskara Planaren berri eman diezaguten. Izan ere, udaletxeko sail hori izan da irailean onartutako plangintza diseinatu duena. Lehenbiziko lana, noski, egoeraren diagnostiko txikia egitea izan zen. *“Laburbilduz, zera esan daiteke”,* adierazi dute, *“Getxoko udalean euskara oso urrun dagoela bai zerbitzu hizkuntza bai lan hizkuntza izatetik”.*

Plana hutsune horiek betetzera dator. Hala ere, eta Arakamak argitu nahi duenez, betetakoan ere egoera ez da guztiz normaldua izango. *“Beldur eman digute prentsan agerturiko zenbait albistek, hiru urte barru udalak zerbitzu guztiak euskaraz emango zituela ziotenak. Hori ez da egia”.*

Planaren lehentasuna jendurrean diharduten langile guztiak herritarrek euskaraz hartzeko gaitasuna lortzea da. Garrantzi handia eman zaie, halaber, *“ume eta gazteenkin dabilzane, Fudurako monitorei adibidez”,* Larrañagak dioskunez. Horretarako adibidez, banakako euskalduntze plangintzatxoak egingo dira.

Honezkero, udaleko 100 langile inguru ari dira euskara ikasten edo aurretik zuten maila hobetzen.

Erabilera sustatu

Planaren berrikuntzetako bat erabilera indartzeko neurriak izango dira. *“Langileen artean hizkuntza ohiturak alda daitezzen zeo-*

«Lehentasuna jendurrean diharduten langileak euskaraz jakitea lortzea da»

zer egiteko asmoa daukagu”, dio Arakamak, *“tailer moduko batzuk”.* Langile berriak heltean, argi adieraziko zaie norekin egin dezakeen euskaraz eta norekin ez. Bestalde, herritarrek langile euskaldunak zeintzuk diren jakiteko moduak ezarriko dira.

Azkenik, irizpideak ezarri dira inprima-


Derrigortasun data

Udaletxeko lanpostu bakoitzak bere hizkuntz profila dauka ezarrita, baina guztiak ez dute derrigortasun datarik. Erakunde autonomoak kontuan hartuta, Getxoko udalak 584 langile ditu, eta horietatik 252k daukate data hori. Planaren arabera, lanpostu horietan diharduten guztiak dagokien profila lortuta izan beharko dute 2005erako. Gaur egun, %25ek baino ez dute. Halako lanpostu batean dabilena ordezkatzeko garaian (euskara ikasten ari delako, esaterako), kontratatutako pertsona euskalduna izatea aurreikusten du planak.

kiak, erantzungailuak, errotuluak, gutunazalak, fax orriak, publizitate idatzia, aktak... euskaraz egin daitezke. Udaletxeko egunerokotasuna euskalduntzeko, azken batean. m

Euskararen jardunaldiak

Euskarazko **ekitaldi mordo**a laster



Anjel Alkain aktore andoaindarrak umore emanaldia eskainiko du Algortan

Badira urte batzuk Hizkuntza Gutzituen Nazioarteko Eguna ospatzen dela abenduaren 3an. Horri lotuta, Getxoko Kultur Etxeak eta Bizarra Lepoan euskara elkarteak jardunaldiak antolatu izan dituzte. Aurten, laugarren edizioa beteko da.

Azaroaren 24tik abenduaren 6ra hainbat emanaldi izango da herrian, Euskararen Jardunaldiak izen jenerikoaren pean. Besteak beste, Anjel Alkain aktorearen umore ikuskizuna izango da azaroaren 28an, Algortako Irish Pipers tabernan eta arratsaldeko 8etan.

Egun bi geroago, Algortako Metroko


plazan, Sebastopoleko Titiriteroen antzerki-emanaldiaz gozatu ahal izango da; hori eguerdiko ordu batetan izango da. Gero, gaueko 10etan eta Getxo Antzokian, Tapiak eta Leturiak kontzertua eskainiko dute. Getxo Antzokian baita ere, Bizkaiko Bertsolari txapelketaren azken finalaurrea egingo da abenduaren 1ean eta arratsaldeko 5:30etatik aurrera.

Bada gauza gehiago: zinea, antzerkia, musika... Tamalez, ez dugu toki nahikorik egitarau osoa hemen idazteko. Dena dela, aldizkari honen 2. orrialdeko iragarkian emanaldi guztiak ageri dira. m

VILLAMONTEKO KULTUR ETXE BERRIA

Jakina denez, Algortako Villamonte kalean kokatuko da herriko kultur etxe berria. Guztira 1.500 m²ko azalera izango du eta helburua Kultur Etxearen eskaintza hobetzea da. Egoitza berri honek Urgull kalekoa ordezkatu du. Villamonten erabilera anitzeko zazpi gela egongo dira, eta horietako lau, behar izanez gero, 220 m²ko areto bakar eta handia bihurtu daitezke. Honez gain, udal liburutegia eta erakusketa areto bat ere aurreikusi dira. Bestetik, erakundearen administrazio osoa hantxe kokatuko dute. Eta, azkenik, udal agintariet bertan hiritarrentzako informazio gunea bat jartzeko asmoa ere azaldu dute, auzokoek udaletxeraino joan barik zenbait gestio administratibo egiteko aukera izan dezaten.

Egokitzen ari dira kultur etxe berria



cianoplan s.a.
global printers

Villa de Plentzia 6. zbk
Antiguo Golf - Getxo
tfnoak: 944 64 90 87
944 64 86 91
<http://www.cianoplan.es>

- Inprimatze eta plano kopiak.
- Kartelak kolorez eta z/b.
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua.
- Fotokopiak kolorez eta z/b.
- Era desberdinetako koadernaketak.
- Plastifikazioak.
- Fax zerbitzua.

EHNA

Euskal Naziotasun Aitormena **Getxon** egin daiteke **honezkero**

Getxoko Sozialista Abertzaleak taldeko zinegotziek EHNA tramitzeko aukera ematen dute euren taldearen udaletxeko bulegoan. Egitasmoak Udalbiltzak dituen helburuetako bat bete gura du: Euskal Herriaren naziotasuna aldarrikatzea. Hau guztia aurrera eramanez ahal izateko "Bai Euskal Herriari" ekimenarekin bat datozen pertsonen sinadura bilketa egin zen.

Egitasmoa 2000. urtean garatu zen. Urte bat geroago Udalbiltzako batzorde orokorretan proposamena onartu zen eta prozedura honen bitartez aurrera egin zuen. Christian Reinickek, Sozialista Abertzaleen kideak adierazi digunez "orain dela gutxi abian jarritako ekimena izan arren egunero dozena erdi pertsona hurbiltzen dira bulegora". Reinickek esan digunez, "EHNA-k nazio eraikuntzaren prozesuan balio oso garrantzitsua dauka".

Bestalde, EHNA eskualdeko beste hainbat udaletxetan ere egin daiteke, Getxokoaz aparte; Sopelakoan, Erandio-koan eta Berangokoan hain zuzen. Informazio gehiago gura izanez gero, telefono honetara dei daiteke: 94 489 02 36 m



Santi Otaolaurutxi, Algortako Torrene kalean dagoen *The Fisherman* tabernako jabea

The Fisherman > Kerik gabeko taberna Orain urte bitik hona **guztiz galarazita** dago bertan **erretzea**

Barrara hurbildu, zerbait eskatu eta zigarroa piztu. Kafea, pintxoa edo potea hartzera doazen erretzaile askoren keinu mekaniko hori debekatuta dago Algortako *The Fisherman* tabernan. Hala erabaki zuen Santi Otaolaurutxi ugazabak duela urte bi berrikuntza egin eta taberna berriro zabaldu zuenean. Bazuen saioen bat eginda aurretik: berrikuntzaren aurreko azken urtebetean eguerdiko ordu batzuetan ere ezin zitekeen erre Santirenean.

The Fishermanek hamazazpi urte daramatza zabalik Torrene kalean. Arrantzarekin zer ikusia duten apaindurez betetako toki txikia da. Erre zitekeenean, berehala egiten zuen kez gainezka. "Jendea kexatzen hasia zen. Lehen, taberna batean zegoenak albokoaren kea jasan behar zuen ezer esan gabe; gaur egun, ez da horrela gertatzen". Santi konturatzen hasi zen erretzen ez zuten bezeroak gero eta deserosoago zeudela eta, haiek ez "erretzeko", eguerdiko ordu batzuetan mesedez zigarrorik ez pizteko eskatu zuen. Esperientzia ez zen txarra izan.

Beraren osasunak ere izan zuen zer esanik. "Arazoak nituela ohartzen hasi nintzen. Ni kirolaria naiz, astebururo joaten naiz mendira, eta neka-neka eginda egoten nintzen".

Inkesta egin zuen

Horrek guztiak eraginda, taberna berri eta debekua eguneko ordu guztietara zabaltzea erabaki zuen, baina aurretik ondo pentsatu behar izan zuen. Neurri arriskutsua izan zitekeela jakitun, ohiko bezeroei idatzizko inkesta egin zien, debekua nola hartuko zuten jakiteko. Azkenik, ezarri egin zuen, eta ez zaio damutu. "Jendeak oso ondo hartu du; bada erreazio txarren bat lehen aldiz datozenen artean, baina oro har onak izaten dira".

Santik badaki bezero batzuek alde egin diotela baina, hala ere, erretzaile asko mantentzen duela dio, antza denez kafearen kalitateak erakarrita. Dioenez, ohiko bezeroen erdiak erretzaile amorratuak dira.

Aitzindaria da Santi ala kasu isolatua? Denborak esango du. m

XII. Mikologia Jardunaldiak Basozaleak elkartearen eskutik



Basozaleak elkarteko kide batzuk euren astelehenetako batzar batean

Basozaleak elkarteak XII. Mikologia Jardunaldiak egingo ditu azaroaren 9tik 25era. Egitaraua Altube eta Murgiara egingo den txangoarekin zabalduko da, azaroaren 9an eta ondoren erakusketak eta hitzaldiak eskainiko ditu. Erakusketetako bat, hain zuzen, hamabost egun izango da

ikusgai elkartearen egoitzan, Karitatea kaleko 1. zenbakian (Tella Gorri plazaren alboan), hilaren 11tik 25era arte. Hitzaldietan, perretxiko pozointsuez berba egingo da besteak beste. Informazio gehiago gura baduzue, 667 075 175 telefonora dei dezakezue, edo elkartetik pasatu. m



Algortako *Bilbo* taberna historikoak atek **itxi** ditu

Bilbo taberna du izena, baina guztiok *La Viuda* ezizenez ezagutzen dugu. Edo hobeto esanda, ezagutzen genuen, itxita baitago orain. Urte askotxo egon da zabalik -25 orain arteko jabeekin eta gehiago aurretik- Algortan eta inguruan sona handikoa den taberna hau; garai batean lepo egoten zen zapatu gauez, Kendall ospetsua edatera zihoazen gazteak ezin kabiturik. Isabel Fernández ibili da beti urte luze hauetan tabernaren lema erosten. Eta sekulakoak ikusi behar izan ditu! Eta hala ere, ez zitzaion inoiz aurpegiko bere irribarra ezabatzen. Eskerrik asko!

Argazkian, Isabel Fernández, ondo merezita jubilatu berri dena

AGENDA

Erakusketak

Erromoko erakustaretoan, Maria Ruizen olioak, 4tik 20ra. Algortako erakustaretoan, 25etik 30era, Medicus Mundi.

Haur zinea euskaraz

Azaroaren 17an, *E.T.*
Azaroaren 24an, *Un Padre de Cuidado*.
Emanaldi guztiak Getxo Antzokian, 12:00, 17:00 eta 19:00etan.



Cinema Paradiso

Azaroaren 8an, proiektzioa eta foruma. 19:30etan, *La Reina de Africa*. 22:00etan, *Una Bala* (laburmetraia), eta *Italiano para Principiantes*.

Azaroaren 15ean, *Escape to Paradise*, 22:00etan.

Azaroaren 22an, *Coronación*, 22:00etan.

Azaroaren 29an, *Little Senegal*, 22:00etan.

Proiektzio guztiak azpiztituludun jatorrizko bertsoian eta Getxo Antzokian.

Udazkeneko kontzertuak

Azaroaren 15ean, Aretako Andres Isasi Musika eskolan, inaugurazioa: Iñigo Iñurrietaren Piano emanaldia, 20:00etan.

Pinosolo berreskuratu

Erdialdea eta Artatzaren artean dagoen **basoa** datorren urtean hasiko dira egokitzen. Bertoko landarediaz gain, **aberatsa da** kanpoko **zuhaitz eta bestelako espezieetan**, lorategi pribatua izan zen garaitik

Pinosolo da, Lertutxeko hariztiarekin batera, Leioako baso bakarra. Ederra izanik, hirigunetik paraje dago, eta horrek balio berezia ematen dio. Horrela, udaletxeak hura berreskuratzeko eta egokitzeko plan bat aurkeztu du. Helburua bikoitza da; basoaren osasuna bermatzeko ez ezik, leioaztarrek berataz gozatzeko aukera eduki dezaten hainbat proiektu gauzatzeko dira. Dena 2003tik aurrera.

Leioako udalak Pinosoloko basoaren egokitzapena iragarri du. Datorren urtetik hasita, hainbat lan izango dira bertan, ondo bereizitako bi fasetan. Lehenbizi, beheko aldeari ekingo zaio, zuhaitz gehien biltzen duenari hain zuzen. Horretan, basoaren babesa izango da erronka nagusia; zuhaitz lehor eta hilak kenduko dira, eta oinezkoentzat pasabide bi egingo dira, basoa gainetik eta alderik alde zeharkatuko dutenak.

Lehen fasean, gainera, Pinosoloko erdiko aldean bizilagunen gozamenerako hainbat proiektu burutuko dira: pasealekuak, umeentzako jolastokiak... Horrez gain, musika emanaldiak edota antzezlanak eskaintzeko gunea atonduko da, eta baita laku bat ere. Lanen bigarren fasea, azkenik, mendi tontorrera arte ailegatuko da, eta oinezkoentzako gunek sortzea izango du ardatz nagusia.

Aberastasan handikoa

Pinosoloko basoak zazpi hektareako azalera du gutxi gorabehera. Garai batean, sendi



Atzealdean, Pinosoloko basoa. Behean, lorategian zegoen zutabe bat herrian.

aberats batena izan zen; 1920an lorategiak egin ziren bertan, eta hortik dator hainbeste espezie exotiko izatea. Baina halako baten lorategiok zaintzeari utzi eta horrek zuhaitzia gaur egun egoera txarrean egotea ekarri zuen. Apurka-apurka, jatorrizkoa ez den landaredia

«Biologiaren ikuspegitik, Pinosolo Leioako gunerik aberatsena da»

jabetu da Pinosoloz, lehengo bidexka, eskalera eta eraikuntzak instaliz. Une honetan, bide zidor bakarrak bisitariek beren urratsez sortutakoak dira, eta ez datoz bat, inondik inora, lorategia zeneko garaikoekin.

Ekologikoki Leioako gunerik oparoena da Pinosolo. Antzina landatutako landareei berriak gehitu zaizkie, eta horiekin batera



animaliak etorri dira, herrian inon ez bezalako aniztasun biologikoa sortuz, non eta eraikin eta errepide handien alboan. Orain, halako gunek baliosu batek behar duen babesa eskaintzen ahaleginduko dira. Egokitzapena 2003an abiatuko da, baina oraindik ez dakigu zein data zehatzetan. m



Mastitxu euskaltegiko kideak ospakizunaren egunean

“Jaio berriak” hogeiei urte Udal euskaltegia birbataiatu dute

Ea bada. Argitu dezagun izenburuko esaldia. Leioako Udal Euskaltegia izena zuenak hogeiei urte bete ditu aurten; hori ospatzeko urrian burutu zituzten ekimeneetatik, bat euskaltegia izen berriaz “bataiatzea” izan da. Aurrerantzean, Mastitxu izango da, eta horrexegatik diogu “jaio berria”.

Mastitxuk hogeiei urte, beraz. Hasi-rako 50en bat ikasleetatik gaur eguneko

250etara. Tartean, 80ko hamarkadaren erdian, garai oparoena: 500 ikasle. Jose Belmonte zuzendariak dienez, “Beharrak gutxitu egin dira; gaur egun jende gutxiago euskaldundu beharra dago”. Duela 15 urte Leioako campusean ere euskaltegia zuen Mastitxuk; gaur egun, hainbestekoa ez bada ere, ohizko eskolak gain, ikastaro bereziak ematen dizkiete merkatariari, eskoletako langileei eta beste hainbati. m

SALAMANCAKO ARTXIBOKO AGIRIAK ESKATUKO DIRA

Kultura eta Gobernu Batzordeen proposamena osoko bilkuran onartzen bada, Leioako udalak Salamancako artxiboan dagoen herriari buruzko dokumentazio guztia itzultzeko eskatuko dio Espainiako Hezkuntza, Kultura eta Kirol ministroari. Hain zuzen, Espainiako gerran hara eramandako agiriak eskatuko dituzte.

Ekimena Eudelen eskutik dator, eta Bizkaia eta Gipuzkoako hainbat udalerriri dira dagoeneko harekin bat egin dutenak. Eudelek teknikari bat bialdu zuen Salamancara bere garaian, han dauden udal agiriak zeintzuk diren iker zezan. Eskatera egiteaz ere bera arduratuko da.

Salamanca Orellana jauregian gordetzen dira gerra eta frankismo garaiko agiri asko



SATISTEGI

CAFE



ADITUAK GARA
PINTXO ETA
BOKATA
BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA

KURKUDI
LIBURU DENA

Euskarazko
irakurgai

Juan Bautista Zabala 8, 48990 ALGORTA
T: 944 913 402

LEIOAZTARROK SEGURUAGO EGOTEKO

Metroko geltokia eta herriaren arteko gunea lapurretarako aproposia delakoan, udalak pertsona zein denden segurtasuna hobetzeko neurriak ipini ditu. Udaltzaingoak bijilantzia zorrotzagoa egiteaz gain, bestelako neurri batzuk ere antolatu dira, zeintzuk diren zehaztu ez bada ere. Oraingo, urrian lagun bi atxilotu zituzten, lapurretan ari zirela.

AGENDA

Perseo Bideforuma

Sabino Arana Kultur Etxeko gela balioaniztean, film argentinarrak emango dira azaroan zehar. Denak 20:00etatik aurrera.

- 5ean: *Nueve Reinas*
- 19an: *El Hijo de la Novia*
- 26an: *Martín (Hache)*

Mikologiaren astea

Azaroaren 12tik 17ra. Egitaraua zehazteke edizio hau ixteko unean.

Musika Garaikideko

XII. zikloa

Hilean zehar, Leioako Kontserbatorioko auditorioan.

- 6an: Aguilar-Lorenzo bikotea
- 13an: Trío Bernaola
- 20an: Kontserbatorioko orkestra eta Leioako San Juan Bautista abesbatza
- 27an: Ensemble Oiaso Novis (Euskal Herria) eta Ensemble Proxima Centauri (Bordele)



Andrés Hernández, bere etxeko lorategian

Bizitza oso bateko poesia

Andrés Hernández poetak 30 urteko poemak bildu ditu bere lehen lanean

Andrés Hernández Errekaldeberri jaio zen, baina maitasunak Leioara ekarri zuen duela 16 edo 17 urte, ez da ondo akordatu. Ingurugiroko ingeniarietan egiten du lan, eta zaletasun asko duela aitortzen du: *“Argazkilaritza, musika, mendia, ikastea, sentitzea...”*, eta noski, poesia.


Joan den hilean bere lehen liburua argitaratu zuen: *Emakume Saaray. Madres del viento*. Mutikotan hasi zen idazten, denetarik, prosa poetikoa, ipuinak, eleberrirak... eta sekula ezer argitaratzeko asmorik izan ez duela dio. *“Nire buruarentzat idatzi dut ia beti, lagunentzat ere bai inoiz”*. Azkenik, ordea, bere lanak irakurri zituen la-

gun batek jarrera hori “leporatu” ondoren, 30 urtean zehar idatzitako poemak bildu eta plazaratu ditu. Edizio gastuak bere gain hartu ditu Hernándezek, baina udalaren eta Auzotarrok elkartearen laguntza izan du lan hau ezagutzera emateko.

Emakumeak protagonista

Hernándezek emakumeak miresten ditu. Emakumeak bere alderdi guztietan, *“ama, maitale, emazte, alaba, lagun... moduan”*. Emakumez inguratuta bizi da gainera —emaztea eta alaba bi ditu—, eta toki garrantzitsua dute bere poesian. Liburuaren izenburuak dena dio. m

Foto zaharra > Gerra aurreko ikasleak



Ikus daitekeenez, garai batean ez zegoen jaiotze-tasarekin gaur beste arazorik

Eskola “escuela” zenean

Iraileko zenbakian hasi ginen Leioako argazki zahar eta ez hain zaharrak argitaratzen. Hauxe duzue, beraz, hirugarrena. Eta, egia esan, galdera gehiegi daude erantzuteko argazkiaren inguruan. Badakigu Espainiako Gerraren aurretik egindakoa dela, baina ez zein urtetan. 20ko hamarkadaren urteren batean, hori bai.

Bestalde, eskola non zegoen ere badakigu. Gaur udaletxea dagoen tokiaren alboan, hain zuzen. Baina ez dugu jakiterik izan, esaterako, irakasleak nortzuk ziren edota zein mailatako umeak ziren begibistan dituzue. Are gutxiago nortzuk ziren, baina ziur zuetako askok zuen burua ezagutuko duzuela irudi honetan, edo zuen gurasoak, edo

zuen aitite-amamak... Kontuak kontu, argazkia bezain ilun geratu zaizkigu haren testuinguru eta historia baina, hala ere, nostalgia apur bat eragin nahi genizuen edade bat daukazueno, eta garai zaharren izpiritu helarazi gaztetxoago zareteno. Pentsa ezazue, adibidez, irudi honetako umeek bete-betean pairatu zutela gerra latz bat. m

Egunkariak prentsa eta aldizkariak

*nahi izanez gero,
etxera eramaten dizugu
egunkaria!!!*

Algortako etorbidea 78
T: 94 491 27 34

OLATXO

altzariak
dekorazio-opariak

Andres Larrazabal, 11 Juan Bautista Zabala, 5
AREETA ALGORTA
T.: 94 464 89 94 T.: 94 491 13 94

Tlf. 94.6760328

LAIKAK Taberna

Bentatxu, 2
48600 - Sopela

Inportaziozko
zerbezaril
onenak

Terraza
zabala

basartena

Tel. 946 76 11 28
URDULIZ

Baselizaz baseliza

Atxazpe Mendi Taldeak azaroaren 10erako **herriko** hainbat txoko ezagutu nahi ditugunoi gure udalerriko baseliza batzuetatik igaroko den **ibilbide ederra** prestatu digute

Hemendik eta nekazal giroan gero eta gehiago murgilduz, baserrien artetik ibiliz Magdalena Auzoraino helduko gara, eta hor eguneko lehenengo baseliza topatuko dugu: Magdalena izena bera duena. Erandioko Agiritegian dauden txosten zaharren arabera baseliza honen behinolako izen arrunta "Santutxu" zen.



Argazkian, Santimami baseliza

Labayru Institutuak argitaratutako "Ermitas de Bizkaia" liburuan irakur dezakegunez Santutxu izenak adierazten zuen baseliza hauek "limosneroak" zirela. Hots, kulturako beharrea limosnak zein eskariak jasotzeko funtzioa betetzen zutela, beti ere beste baseliza "inportanteago" baten menpe zeudelarik. Labayruko obrak berak dino Magdalena baseliza hau auzo berean San Cristobali eskainitakoaren menekoa zela. Azken honetan eta izenak berak azaltzen duenez San Cristobal gurtzen dute auzotarrak eta, bide batez, urteoro, uztailearen 10ean erromeria ere ez dute faltan.

«Astrabuduko Josu Murueta Enparantzatik, eta Altagako Irailaren 23ko Plazatik, goizeko 9etan abiatuko dira ibilaldiak»

Txangoari ekingo diogu berriro ere eta oraingo honetan Martiartuko auzoraino, bertako dorrearen alboko San Antonio baselizaraino hain zuzen, abiatuko gara. Eraikin hau kortak, errota, eta beste edifizio batzuekin batera hango jauntxoaren

bizigune handiago baten parte bat baino ez zen, gaurdaino dorrea eta baseliza bakarrik heldu zaizkigun arren. San Antonio Padukoaren egunean, ekainaren 10ean, erromeria indartsuak egoten dira.

Puntu honetan hasiko gara etxerantzako itzulbidea egiten "Santimamiko lantzarra" izeneko inguruan kokatuta dagoen Santimami baseliza bisitatu ondoren, noski. Honen izen "ofiziala" San Mamés bada ere bertakoek Leioa eta Erandio arteko mugari dirudien baseliza honi Santimami izena jarri zioten eta jendea bertara joaten zen, sailduari amesgaiztoak uxatzeko eskatzera. Hemen ere, erromeria izan ohi da abuztuaren 17an.

Agurtu baino lehen gogoratu behar gure herriko Fano auzoan dagoen San Pablo eta San Bernabe baseliza ere badugula.


«Bi taldeak Hiru Gurutzetan elkartu ondoren XV. mendeko Andra Mari Eleiza gotikora abiatuko gara»

Utziko dugu beste txango baterako aitzakia gisa. Honetaz gain San Lorenzo aspaldi bihurtu zitzaigun tenplu modernoa, eta beste garai baten gure herrian egon zen San Martin baseliza betiko desagertuta dago, non zegoen inork ez dakielarik.

Orain bai. Beste bat arte. Agur. m

Pertsonaia > Luis Maria Ateka, asmatzailea

“Mc Giverren filmak atsegin ditut”



Argazkian, Luis Mari Ateka

Luis Maria Ateka, Astrabuduko asmatzaileak, estadio handietan izan diren istripuak saihesteko futbol zelaiko segurtasun hesien patentea du, baina asmakizuna erosteko eskaintzaren zain dago.

Mc Giverren filmak atsegin ditut”. Astrabuduko Luis Maria Ateka ez dio hori film horien zalea delako, ez eta aktore horren jarraitzailea delako ere. Bere istorioa asmatzaile baten istorioa da, eta Mc Giver, banana eta gatza nahastuz, lehegailu bat

egiteko gauza bada ere, erandioztar hau sinestegariagoak diren asmakariaren aita da.

Badira lau-bost urte bere azken buruzazioa gauzatu zuela, futbol zelaietan edota estadio handietan istripuak saihesteko balekoak izan litezkeen segurtasun hesiak. Heysel, Hillsbrough edo Guatemalako Mateo Flores estadioetan jazotako istripu mingarriak, hain zuzen ere, gogoan ditu Atekek, ehunka hildako eragindako istripu horiek guztiak bere hesiekin ekidin ahal izango zirelako ustea baitu: “Bai, horixe”.

Hala ere, harrezkero ez du funtsezko erantzunik jaso ideia horretatik, hau da,

oraino ez du asmakari horren patentea erosteko eskaintzarik izan, zorianak leku askotatik heldu zaizkion arren. “Jende guztia jakinaren gainean dago, bai European, bai Hego Amerikan. FIFA eta UEFAko mandatariek ere badakite, Espainiako Lehen eta Bigarren mailetako talde guztietakoek bezala. Real Madrid-ek ere zoriondu egin ninduen. Baina, oraino, erantzunik ez”, erantsi du.

«Futbol zelaietan istripuak saihesteko segurtasun hesiak asmatu ditu»

Egun Astrabuduko Electricidad Ateka dendan egunak ematen dituen bitartean, lan eta lan, ez du itxaropena galtzen, are gehiago, amets egiten du egunen batean segurtasun hesien patenteagatik eskaintza on bat jasoko duela. Horretarako, asmakari hori iragarrita du sarean (www.gaztetan.com/ateka). “Atera nazatela pobrezia honetatik”, dio, umorez.

Alabaina, hesiak ez dira bere asmakizun bakarra. Duela 9 urte-edo *disc-sund* izeneko otu zitzaion. Hondartza-hamaka azpian kokatzen zen, eta berau mugitzen zen eguzkiari begira. Azala belzturik nonahi. “Corte Inglés katean saltzea lortu nuen, esperientzia zorritzarkekoa izan arren, uda hasita sustatu bainuen eta, horretatik, diru mordo bat galdu; eskarmentu ezagatik izan zen”, dio.

Berdin zion. Bide berberari ekin zion atzera eta, orain ere, ekiten dio: “Zer egingo dut ba, ipurtarina naiz”. m


Basagoiti, 55 behea
T.: 94 460 09 62 / 66
Faxa: 94 460 0966
48990 ALGORTA
eginkor@euskalnet.net

BEHIN BATEAN
LIBURUDENDA
Kasune, 24 ALGORTA
Tf. eta Faxa: 94 430 74 03


moda gaztea
opariak
YIRATI
Torrene 2, ALGORTA
T.: 94 491 12 71

Kaleak terrazaz josia

Trafikoa mugatu eta **oinozkoentzat espazioa** libratu duten lanek kale giro **aldaketa** nabarmena sortarazi dute gure herrian. Herriko tabernari birekin egon gara euren **iritzia** ezagutzeko

Erandion amaitu berri diren kale konponketen ondorioz aldaketa nabarmenak izan dira kale giroan. Oinezkoek espazioa irabazi dugu, eta trafikorik ez den bitartean behintzat, askatasun handiz ibiltzen gara herriko kale nagusietatik.

Era berean, espazio bereko hainbat tabernak ere beren itxura aldatu dute. “Oasis”, “Kirru”, “Ziaboga”, “Aingura”, “Erandio” tabernek itxura berriagaz zabaldu dituzte ateak. Uda luzatu nahian edo, terrazek izkinak eta espaloiak bete dituzte.

Giro aldaketa sumatzen da Erandioko kaleetan eta susmoak konprobatu guran tabernariekin berba egin gara izan dugu.

Santi taberna

Santi tabernako Luisek urteak daramatza barra atzean. Gaur, jubilaria hartu ondoren bere semeek jarraitzen dute Santi taberna berriagaz. Tabernako giro aldaketari buruz galdetu diogun hiru kontatu digu:

“Giroa zeharo aldatu da. Ni hasi nintzeanean barran ardo arrunta eta bazkal osteko kaferen bat ematen genuen. Ohiko txikiteoa izaten zen gure beharra. Garagardoak ere gutxi ematen genituen orduan. Urtean hiru hilabetetan gehien jota aldatzen genuen garagardo kupela eta serpentina hoztuteko izotz hormak erabiltzen genituen.

“Orain, berriaz, garagardoa ardo beste saltzen da eta horrez gain eskilarapeko edo urte batzuetako ardo da ematen duguna, berezia alegia. Jende gutxi jarraitzen du ardo arrunta edaten. Konbinatuak ere eguneroko gauza bihurtu dira. Lehen “kuba libre”



Herriko terrazetako bat. Behean, Karraka taberna.

edatea zeozer berezia zen, une zehatz bateko gauza. Gaur, berriaz, edozein ordutan eta egunetan edaten da”.

Karraka edo Kurruku tabernako Leirek urte gutxiago daramatza barran eta hori igarri egiten da giro aldaketari buruz galdetu eta eman digun erantzunean:

“Konbinatuak eguneroko gauza bihurtu dira. Lehen ‘kuba libre’ edatea zeozer berezia zen”

“Nire ustez, behintzat, ez da egon aldaketarik. Kaleak konpondu eta gero terraza atera dute hainbat tabernak, baina egun batzuetako gauza da hori. Jendea lehen moduan sartzen da tabernan eta betiko gauzak eskatzen dizkit”. m



Antzerkia Bonbolinak-en eskutik Emakumezkoek egindako antzerki lanak ikusi ahal izango dira Erandion datozen sei hilbeteotan

Camino de Mujer zirkuitua Getxoko Antzerki eskolak antolatzen du, eta Bizkaiko emakumeen antzerki talde amateur batzuei hilabete behin euren lanak antzetzeko aukera eskaintzen die. Aurtengo edizioa laugarrena izango da eta berezitasun batzuk ditu. Emakumez osaturiko sei antzerki talde amateurrez gain, antzerki talde profesional batek ere parte hartuko du. Talde hau, Arakean taldea, hilabete behin arituko da tauletan baina ez du sari banaketan parte hartuko.

Berrikuntzak

Zirkuituan lau sari banatzen dira, Electra sariak alegia. Bata zuzendaririk onenari eskaintzen zaio; bigarrena, aktosari onenari; hirugarrena, konpainiarik onenari. Azkenik, iazko berrikuntza izan zena, publikoak aukeratutako taldeari.

Aurten, gainera, zirkuituaren egitura berritu egin da. Taldeen antzezlari bakoitzaren aurretik Getxoko Antzerki Eskolako ikasleek animazio labur batzuk landuko dituzte antzezlariaren gaia azalduz. Horrela, publikoak, programatutako

lana ikusteaz gain, obraren gai nagusira hurbiltzeko aukera izango du. Urriaren 11n Hezgaitez taldeak hasiera eman zion aurtengo edizio honi “El Bunker de Bernarda X” antzezlarekin. Kolore taldeak “Las azaras andanzas de dos pícaras pellejas” antzetzuko du. Entre Mujeres taldeak “Tierra” lana eskainiko du. Tutum taldeak “Esa clase de gente”. Aztiak-ek “Sirenas de asfalto. El retorno de Celina”. Arakean taldeak “www.comunicando.com”, eta Bonbolinak-ek “El Nacional”.

Talde gehienek proposamen ausarta ekarriko dute aurtengo edizioa, eta horrek seguru asko poztasun handiagoa emango dio zirkuituari. Zirkuitu hau ezagutzen ez baduzu, ezin duzu aukera galdu! m



ARTE ETA KULTUR JARDUNALDIAK LUTXANAN

Erandioko Lutxana auzoari bizitasuna emateko eta jai giroa zabaltzeko asmoz, arte eta kultur jardunaldiak antolatu ditu Keli gazte taldeak, azaroaren 11tik 17ra. Egitarau potoloa prestatu dute: astegunetan arratsalde izango dira ekitaldiak eta asteburuan egun osoan zehar: antzerki saioak, kale animazioko musika, erakusketak, filmak, laburmetraiak, hitzaldiak eta tailerrak. Keli taldeak urteak daramatza auzoari bizitasuna eman nahian kultur ekintzak antolatzen, eta hurrengo urteetan ere jarraipena izango duen itxaropenez landu dute oraineko ekimen hau.

BIZIRIK ERRESPETA GAITZAZU

Txirindularien eskubideak aldarrikatzeko III. Martxa Zikloturista antolatu du Erandioko Txirindulari elkarteak. Alde batetik, kotxe gidariak kontzientziatzea dute helburu, eta, bestetik, txirindularien babeserako neurriak hartzeko eskatzen diete erakunde ofizialei. Bereziki, txirindularientzat metro eta erdiko gunea gordeko duen marra gorria errepide guztietan jartzeko eskaria azpimarratzen dute. Horrela, bizikletaren erabilera erraztuko litzateke, bide gorrietara mugatu gabe. Izan ere, txirindulariak babesik gabe sentitzen dira errepidera ateratzen direnean. Aldarrikapen horiek ezagutzera emateko asmoz antolatu dute III. Martxa Zikloturista azaroaren 10ean

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

VASA

20º ANIVERSARIO URTEURRENA

AENOR Empresa Registrada ER-1891/2001
AENOR Gestión Ambiental CGM-02/006

KLIMATIZAZIOA
INGENIARITZA
INSTALAZIOA
MANTENIMENDUA

Villa de Plentzia, 18 behea
48930 Las Arenas | Getxo
Bizkaia
Tel.: 94 464 51 66
Fax: 94 480 54 70
e-mail: vasa@euskalnet.net

Maximerkatu bati lotuta

Hamabi urte dira **Berangon Maxi Eroski** zabaldu zela. Leioako Hiper eta Artearen tamainakoa izan barik, **badu eraginik herrian** eta horren inguruan. Guztiek ez dute modu berean ikusten, ordea.

Askorentzat, lehen, Berango eskualdeko toki batetik bestera joateko ia derrigorrez igaro beharreko tokia baino ez zen. Orain, zerbait gehiago ere bada: asteen edo hamabostean behin erosketak egiteko gunea. Hori Maxi Eroskiri zor zaio; duela hamabi urte ireki zuten, aurrez existitzen zen eraikin batean, eta eragina izan zuen, zer esanik ez, herriko bizimoduan. Horri buruz galdezka ibili gara ondoko erreportajetxo osatzeko.

Miren Dobaran Berangoko alkatea da gaur egun, baina Maxi Eroski ireki zute-nean udaletxean ere ez zegoen. Hala eta guztiz, orduan egon ziren balorazioak gogoratzen ditu: *“Herriko jendearentzat onuragarria izango zela pentsatu zen, jende asko langabezian baitzegoen hemen”*. Herrikoak berehala hasi ziren lan eske, artean merkata zabaltzeko lizentzia eman barik zegoela.

Herrigunetik aparte kokatuta egoteagatik, Eroskik ez zuen eragin zuzenik izan herriko bizigiroan, baina izan zezakeen, bai, denda txikien kasuan. Dobararen ustez, baina, ez da hainbestekoa izan: *“Nik ez dut ikusi ordutik dendarik ixten Berangon”*. Dobaranen esanetan, udalak ez du gura azalera lar handiko merkatalunerik.

Bezeroak erdi bana

Estibaliz Barrenetxea Maxi Eroskiko gerentea da. Dioenez, bezeroak erdi bana daukate denda handiak eta denda txikiak. *“Erosketa mota desberdina egiten da han eta hemen”*. Barrenetxeak guztientzako merka-



Lehenago egoitza militarra izan zen gaur egun Maxia dagoen eraikina

tua badagoela pentsatzen du. *“Denda handi bat zabaltzen denean, beti esaten da besteak desagertaraziko dituela, baina azkenean,*

«Jendeak erosketa mota desberdina egiten du toki batean eta bestean»

Berangon, betiko dendek ere aurrea egiten dute”. Maxiko gerenteak dioskunez, beti ere bertako langileak kontratatzen ahalegintzen dira, baina ez da erraza. *“Guk eskaintzen dugun lan mota ez dute denek nahi”*.

Denda txikien ugazabengana jo dugu azkenik. Juanjo Barcenak, esaterako, 35 urte daroaz janaridendan. Beraren iritziz, Maxiren eragina handia eta txarra izan da: *“Herria guztiz akabatu du. Hamabi urtean ez da negozio berririk zabaldu hemen, in-*

Maxi Berango

- Azalera: 2.700 m² (azalera ertaina).
- Langile kopurua: 103 (bi izan ezik, denak Uribe Kostakoak). Berangokoak 48 dira (%47).
- Berangoko bezeroak: %24.
- Getxo, Urduliz, Sopela eta Barrikakoak: %55.

formatikakoak-eta ez badira. Eta itxi direnak ez dira berriz ireki. Alboko arraindegia, adibidez”. Bai Barcenak eta bai aurreko frutadendako Luis Graciak ere, Eroski zabaltean bezero kopuruaren jaitsiera igarri zela diote, gaur egun, euren esanetan, zertxobait berreskuratu badute ere. m



Orain dela urte bi egindako ibilaldi neurtuan parte hartu zuten gazte batzuk

Sei Herriren ekitaldiak

Hileon ibilaldi neurtuaren **20 urte** beteko dira

Sei Herri kultur elkarteak, ohi bezala, ibilaldi neurtua egingo du azaroaren 17an. Aurten, baina, berezia izango da ospakizun hori, hogeigarren edizioa da-eta. Urteurren esanguratsua delakoan, Sei Herriko kideek ez dute ibilaldi neurtua soilik antolatu gura izan, eta hainbat ekitaldi prestatu dituzte haren inguruan.

Ekitaldiotako batzuk joan den hilean egin ziren. Azaroan, berriz, Gorbeara txan-

goa egingo dute (10ean), hitzaldia izango da Berangoko Kultur Etxean (13an) eta astebururo kamisetak salduko dituzte Berangoko pilotalekuaren atarian.

Azkenik, 17an, ibilaldi neurtua izango da. Ondoren, poteoa (musikaz alaitua) eta herri bazkaria. Ibilaldia goizeko 9etan abiatuko da, eta izen ematea 8:15etan hasiko da Sei Herri herriko tabernan. Umeak 9:30etan abiatuko dira. m

Gizarte-bazterkeria hizpide

Azaroaren 5etik 20ra gizarte-bazterkeriari buruzko jardunaldiak izango dira, udalak eta gaiaren inguruan lanean dabiltzan Bizkaiko hainbat elkarte antolatuta. Guztira, zazpi hitzaldi-mahainguru izango dira, prostituzioa, drogomenpekotasuna, homosexualitatea, harrera-zentroak, alkoholismoa, emigrazioa eta presoak eta osasungintzari buruz. Zazpiak ere arratsaldeko 19:30etan izango dira, Berangoko Kultur Etxean, eta hurrenez hurren, hila-

ren 5ean, 6an, 8an, 12an, 13an, 15ean eta 19an egingo dira. 20an, eta amaitzeko, jardunaldien gaineko hausnarketa eta balorazioa egingo da. Hitzaldi guztietan aipatu gaiei buruzko adituek parte hartuko dute, eta horietako batzuetan, gainera, nolabaitko bazterkeria jasan duten pertsonak izango dira, euren lekukotza emanez. Besteak beste, EHGAMeko kideak, Hontza harrera-zentrokoak eta hiru alholiko ohi etorriko dira. m

Bestelako gaiak

- Drogak
- Politika
- Bidaiak
- Osasuna
- Sexualitatea
- Munduko
- Literatura

ORIXA
liburudenda

Alangoeta 8
(Euskal Herria kalearekin bat) Tfn.: 94 491 23 79

Basurto
Algorta S.L.
altzariak

Telletxe 15, Algorta

T: 460 71 62 - 460 42 44



amesti 7sl

[eraikuntzak]

[etxeetako berrikuntzak]

[gremioen koordinaketa]

Kasune 9 • Tel./Fax: 94 431 98 06
48990 ALGORTA

4 bide
pinturak



Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Ituribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

BISITATU
GURE DENDA!

MOROTXO



350 M²
KIROLERAKO
GUZTIA!!


URIBE KOSTAKO
KIROL
DENDA

TORRENE 4
ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA
TF. 94 491 18 82

[berango]

Pertsonaia > Sabin Latorre

Herri kirolari lotutako bizitza



Sabin Latorre bere etxean, Berangoko Santa Ana auzoan

Etxe txiki batean bizi da Sabin Latorre, Santa Ana auzoan. Loipun jaio arren, berangoztar esan dakiok lasai, 30 urte daroaz-eta bertan ezkondua.

Azken boladan idi probalari moduan izan da ezagunago, baina kirolaren -eta batez ere herri kirolaren- arlo guztietan ibili da Latorre, bai kantxan eta bai bulegoetan ere. *"Atletismoan hasi nintzen, korrika. Jubenilak baino lehenago"*.

Pilotan eta txirrindularitzan ere ibili zen. Baina lehenengoan, ondo moldatu arren, garaia ez ziren gaurko modukoak eta itzi egin zuen; bizikleta gainean ibiltzeko, berriz, pisu lar zeukan. Azkenik, harri-jasotzaile bihurtu zitzaigun, hamasei urte zituela. *"Ordun ehun kiloko harri bota nendun bizkarrena. Urte bi ibili nintzen, eta gero akzidente bat euki nendun motorragaz, harri jasotzen noala"*. Istripu latza izan zen hura, eta hiru urte kostatu zitzaion Latorrerri guztiz ondo egotea atzera.

Sendatu ostean, harri-jasotzaile gazteak

prestatzen hasi zen. *"Bateaz konsegidu nendun Bizkaian 200 kilo hartzen gendun lelengoak izatera ailegate"*. Baina "bizie" zen Sabin, eta gauza gehiagotan sartu zen. Berango eta Loiuako sokatira taldeak sortzen eta prestatzen, besteak beste.

Bulegotik karrejura

80ko hamarkadaren hasieran, bulegoetara zuzendu zituen ekinak. Bizkaiko eta Euskadiko herri kirol federazioen sorkuntzan parte hartu zuen, estatutu eta arautegiak idatzi. Besterako denborarik ez zuen, eta idi eta astoak saldu egin zituen. Azkenean, 1989an idiak prestatzen hasi zen, modu berritzailean, ia eliteko kirolariak izango balira lez. Sari batzuk ere lortu zituen holan, *"baia ni baino hobek asko dagoz, e?"*. Edozelan ere, idiekin ibiltzeko sistema berria asmatu zuen, ordenagailu, albatari eta elikaduraren kontrol eta guzti. Azken boladan ez da probalekuan ibili, baina adi, honek ez daki geldirik egoten eta... m

[berango]

AGENDA

Erakusketak

Erakustaretoan, Barne Retratoak, Julen Altunaren akrilikoak. Azaroaren 10a arte.

Erakustaretoan, azaroaren 11tik 24ra, Joan Fontcubertaren argazkiak.

Erakustaretoan, Pedro Zarrabitiaren *Los Colores del País*. Azaroaren 25etik abenduaren 8ra.

Irteerak

Azaroaren 24an, Bilboko Nazioarteko Txotxongilo Jaialdira irteera. Beraz, egun horretan ez da umeentzako zinema saiorik izango. Kultur Etxeak antolatuta. Salneurriak sarrera eta garraioa hartzen ditu barne.

Abenduaren 5ean elurretara txangoa. Irteera 18:00etan. Itzulera abenduaren 8an, 17:00etan. Izena emateko epea, azaroaren 25a arte zabalik Kultur Etxean.

Ibilaldi neurtua

17an, Sei Herri kultur elkartearen XX. Ibilaldi Neurtua. Goizean abiatuta, Berangoko hainbat txokotatik igaroko da. Horren ostean, umeentzako jokoak eta herri bazkaria izango dira.



Gizonezkoek etxeko lanak egiten ikasiko dute

Bestearen mundu hori... Sexuen arteko lan-trukea Kultur Etxean

Iazko esperientzia ona izan zelakoan, Berangoko Kultur Etxeak bigarren aldiz antolatuko du aurten gizon eta andrazkoek tradizioz beste sexuari dagozkion lanak egiten ikasteko ikastaroa. Azaroaren 28tik otsailaren 13a arte, bina orduko 11 eskola izango dira. Izena emateko epea hilaren 22an amaituko da.

Gizonezkoek lixatzen, garbitzen, josten eta jatekoa prestatzen ikasiko dute. Horrez

gain, etxeko ekologia izeneko modulua jasoko dute. Andrazkoek beste bost ikasgai izango dituzte: iturgintza, elektrizitatea, brikolajea, pintura eta enpapelatzea eta autoaren mantenimendua. Azken eskolan, guztiak batera ibiliko dira arduen banaketan eta negoziazioari buruzko ikastaro laburrean. Eskolak ostegunetan izango dira, arratsaldeko 7etatik 9etara, eta iaz bezala, Ortzadar enpresak emango ditu. m

k
r
i
m
e
a

Negubide 13
Tel. 94 463 61 82
AREETA

ALGORTA
dj.ak
antzerkia
erakusketak

Taberna
Berri

Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf.: 944 306 493

jateko

JATEKO

urdaitegia • frutadenda • elikagaiak
Amezi 4 -Tf.: 94 491 06 54
ALGORTA




Ereaga ondartzatza gaineko Etxebarrietan, dantza gela bat (argazki handia).
Udaletxearen aurrean faszistek euren 'garaipena' ospatzeko atxatu zuten
monolitoa, laster erabitsiko dutena (argazki hau). Lezama-Legizamon
jauregiaren aurrean dagoen beste monolito bat (eskurinean). Hanbat
etxeetan ikusi daitekeen falangisten ikurra: uztauria eta gezalak (alboan).

Frankismoaren arastoak

UKren aurreko zenbakian dagoeneko ezertarako balio ez duten baina oraindik zutik dirauten gauzak erakutsi genizkizuen sail honetan. Oraingoan, Francisco Francoren diktadura luzeak utzitako sinbologiaren parte bat dakarkizuegu. Egunotan beteko dira ferrodarraren heriotzaren 27 urte, eta haren oroitzapena ez da guztiz amata, irudik erakusten dutenez. Irudiek soilik?

Argazkiak: **Aster Mentxaka**



[berbetan]

Bilbotarra, 1965ean jaioa, Deustuko unibertsitatean Filosofia ikasitakoa eta lizentziaduna, Madrilen bizi da orain bost urtetik hona. Alex de la Igleziak 1991n egin zuen debuta zineman, *Mirindas Asesinas* film laburrekin. Hurrengo urtean lehen luzemetraia egin zuen, eta harrezkero ez da geldirik egon. Joan den hilean aurkeztu zen *800 balas*, bere seigarren luzea eta berak ekoiztutako lehena. Aitzakia horretatik abiatuta, berba egin dugu berarekin. Zuzendariaz eta pertsonaz.

Alex de la Iglesia

Miserien erretratugilea

Testua: **Unai Brea**

—Sortu berri duzun ekoiztetxeak *Pánico Films* du izena, eta zuk zeuk esana duzu beldur itzela diozula inguratzen zaituenari... Nola islatzen da hori zure zineman?

—Egia da oro har beldurra diodala errealtateari, guztiari azken batean. Oso latza iruditzen zait dena, oso zakarra. Eta hain zuzen, zinema egitea da beldur horretatik askatzen nauena. Zinema egiten dut beldur horretatik ihes egiteko era egokia delako.

—Kanpotik ematen du ez diozula zeure irudi estetikoari garrantzi handirik ematen...

—Hori begibistakoa dela uste dut! (Barre)

—Berezkoa da hori, ala aurrez pentsatutako zerbaite?

—Ez naiz horretaz pentsatzen egoten. Izan ere, ni ez noa txarto jantzita apropos; nahi dudana bezala jantzen naiz, eta zentzu horretan neure buruarekin zintzoa izaten eta gustura egoten ahalegintzen naiz. Egingo ez dudana zera da: jaka eta korbata jantzi... Tira, hala ere, nahiago dut jaka eta korbata jantzea lentejuela janzkia baino. Baina bizitza normala izaten saiatzen naiz, zoratu barik; gauza horietaz pentsatzen hasiz gero zoratu egin daiteke bat.

—Zelako umea zen Alex de la Iglesia?

—Gehiago gustatzen zitzaidan etxean jolasten egotea kalean baino. Esan dezagun ni futbolearen aritzen ez zirenetakoa nintzela,

taldeak aukeratzen zituztenean hautatzen zuten azkenetarikoa, baina azkenean jokatu egiten nuen. Hala ere, ez nintzen itxia, denekin egiten nuen berba... Baina nahiago nuen mahai-jokoetan aritu kalean korrika ibili baino.

—Zure haurtzaroko paranoiek badute lekurik zure filmetan?

—Zalantza barik. Egiten duzun edozerk zelakoa zaren islatzen du, eta baita zerk kezkatzen edo obsesionatzen zaituen ere. Nire filmetan argi eta garbi ikusten da zerk ematen didan beldurra. *La Comunidad*-en, adibidez, labezomorroak agertzen dira niri sekulako beldurra ematen didatelako. Nire

Alex de la Iglesia *800 balas* filmearen erroldajearen. Guztira, 13 aste eman ditu horretan, "gehiegi" bere esanetan >





Goian, errodajearen hartutako irudi bi

Fikziozko mundu hori...

800 balas Texas-Hollywooden eginda dago, Almeriako basamortuan. Filmeko pertsonaiak zinema-espezialista ohiak dira, ikusle despistatuentzako western-ikuskitzaile merkea eginez bizirauten dutenak. Texas-Hollywood da zutik dirauen spaghetti westernetako dekoratu zahar bakarra. Filme asko egin dira han, eta errealtatean ere 800 balas-en agertzen direnak bezalako pertsonaiak gordetzen ditu bere baitan. Hain zuzen, hara egindako bisitaldi baten bururatu

amaren etxean, Urkixo kalean, labezomorro asko zeuden; gogoan dut gauetan, ohean, hormatik gora igotzen entzuten nituela, eta “edozein unetan aurpegira jausiko zaizkit” pentsatzen nuela.

—Zure filmetako pertsonaiak okerretan okerrenak eta baztertuenetan bazterrekoe-nak dira. Gizartearen karikatura dira, ala benetan uste duzu jendea horrelakoa dela? —Bada, badaukat “Escuadrón escoria” ize-

“Umetan ni futbolearen aritzen ez zirenetakoa nintzen, taldeak aukeratzen zituztenenean hautatzen zuten azkenetakoa”

na duen gidoi bat, beraz bete-betean asmatu duzu. Hala ere, nik ez dut baztertuei buruz hitz eginen; besterik gabe, uste dut denok garela horrelakoak. Guztiok daramagu miseriaren zama, eta interesgarria deritzot horri buruz jarduteari.

—Honezker, estilo bat sortu duzu? Kultura zuzendaritzat daukazu zeure burua?

—Santiago Segurak behin esan zuenez, inkultura zuzendaritzat daukat (barre). Ez, orain benetan... Sei film luze egin ditut, eta obsesioak errepikatu eta gauzekiko ikuspuntu jakin bat izateari estiloa esaten badiotzu, orduan beharbada bai, baina nik ez daukat estilo bat izateko asmorik. Izan ere, asko kezkatuko ninduke gehiegi errepikatzeak, ez zaizkit gustatzen beti kontu berarekin,

“Guztiok daramagun miseriaren zamaz jardutea interesgarria iruditzen zait”

dekoratu bereberekin edo umore mota bereberekin behin eta berriz lan egiten duten zuzendariak. Angustia sortarazten dit horrek. Nire filmak desberdinak izan daitezten ahalegintzen naiz. Bestetik, kontraesana dago: ezin da norberaren buruarengandik ihes egin, gauzek zuk zeuk haietaz sinesten duzunean funtzionatzen dute hain zuzen; bada nolabaiteko ardatza, eta horregatik filmetan errepikatzen diren kontzeptuak sortzen dituzu agian, baina ni hori ezkututzen ahalegintzen naiz.

—Bortizkeria ezinbesteko osagaia da zure film guztietan?

—Edozein garapen dramatikotan nahitaezkoa dela uste dut. Istorio bat existitzeko gatazka bat behar da, bestela ezin da ezer kontatu. Lanera doan, emaztea maite duen eta etxeratutakoan lokartzen den baten bizitza inork ez du ikusi nahi. Zeozer gertatu behar da, zeozer zoragarria edo zeozer ikaragarria, baina gatazka egon behar da.

—Zein zuzendarik eragin dizu, edo zein gustatzen zaizu?

—Ni nahiko klasikoazalea naiz. Beti izan naiz. Gehien miresten dudana zuzendaria Alfred Hitchcock da. John Ford, George Cukor... ere bai. 40 eta 50eko hamarkadetako zinema amerikar klasikoak gustatzen zait gehien. Horrez gain, jende asko. Kronenberg adibidez, nik egin ezin izango nukeen zinema mota egiten du-eta. Edo Peter Jackson... Askok gustatu zait nola egin duen *El Señor de los Anillos*.

—Kontaidazu 800 Balas.

—Bere aitita ezagutzen duen mutiko baten istorioa da. Aitita lotsabako galanta da, mundutik aparte bizi den morroia, western-etako dekoratu zahar batean, nahi duena

egiten. Orduan mutikoak dibertitzea zer den ezagutzen du, lagunak edukitzea... has-tapen sexual surreal samarra ere badu. Azkenik, mutikoaren eraginez, aititak bere fikziozko mundua utzi behar du errealtate-ari aurre egiteko. Herrixkatik bota nahi dituzte parke tematikoa eraikitzeke, baina aititak gezurrezko balak aldatzen ditu benetako-koen orde. 800 bala erosi eta poliziaren aurka tiroka hasiko da...

—Osorik kontatu didazu...

—Ez. Hirugarren partea falta da.

—800 Balas “marmitako western-a” dela esan duzu. Zer da hori?

—Txantxa, batez ere. Spaghetiaz bereizteko modu bat da, filmea spaghetti western-ak egiten ziren toki berean eginda baitago. —Hain zuzen, film honekin hasi zara zeure lana ekoizten. Zergatik? Aberasteko asmoa, ala independentzia grina?

—Aberasteko asmoa baino, zorrak izatekoa esango nuke nik. Etxea bi bider hipotekaturik daukat eta nire etsairik amorratuaren opa ez diodan *marroia* daukat kredituak dirrela eta. Baina filma ondo badao, uste dut dirurik ez galtzea lor dezakedala. Bestetik, kontua da nik independentzia apur bat gura nuela. Nire ekoizleekin une txarren bat pasatu ostean, hala erabaki nuen. “Bilbainada” bat.

—Orduan, oztopoak izan dituzu zeure lana egiteko garaian?

—Egia esan aurrekoetan ere gustura egin dut lan. Baina nik ezin nuen erabaki dirua non gastatu. Ez nuen ekoizpenaren kontrolik; honetan bai izan dut, eta uste dut hori pantailan igarri egingo dela.

—Estatu espainiarrean ezinezkoa da zinemari lan egitea Madrilan ez bada?

—Bada Bilbon lan egiten duen jendea, baina profesionalki aritzen bazara derrigorrez joan behar duzu Madrilera. Bilbon ez dago laborategirik, ez dago grabazio estudio-rik, ez dago azpegitura nahikorik; beraz, ez zaigu beste irtenbiderik geratzen. Ondo legoke hori aldatzea, baina horretarako Eusko Jaurlaritzak zinema oso errentagarria dela ulertu beharko luke.

“Oso zaila da lehiaketa baten filmik onenak irabaztea”

—Zer deritzazu sariei?

—Oso ondo daude ematen dizkizutenean. Ni epaimahaikoa izan naiz lehiaketaren baten, eta oso zaila da filmik onenak irabaztea. Ni egon nintzenean, nire ustetan ezinbestean irabazi behar zuen filma nire aldameneko emakumeak gehien gorroto zuena zen. Eta alderantziz. Azkenean akordioa lortzen da; eta irabazlea ez niri eta ez berari

gehiegi gustatu ez, baina oso txarra iruditzen ez zitzaiguna. Nolabait, gustuko genituen filmen artean kaxkarrenak irabazten zuten. Eta niri hori ikaragarria iruditu zitzaidan. Ez nabil irabazlearen meritua gutxiesten, baina ez lirakeke oso kontuan eduki behar.

—Zuk baduzu Goyaren bat...

—Bai, hainbat, baina ez dakit non...

—Zenbat?

—Ez naiz gogoratzen. Uste dut *El día de la bestia*-rekin 6 irabazi genituela, *Acción mu-*

tante-rekin ere nahikotxo. *La Comunidad*-en bakarra. Gogoratzen naiz *El día de la bestia*-rena gau hartan bertan galdu genuela. Absurdua da; handik irteten zara parranda gogo itzelarekin, eta tona bat pisatzen duen trastea daroazu. Azkenean tabernaren bateko barran ahazten zaizu. Gero biharamunen eta kristoren ostearrekin bila joan behar: “*Aizu, ikusi duzu Goya bat hemendik?*”. m

Alex de la Iglesia filmografia



Acción mutante
Antonio Resines,
Alex Angulo...
El deseo, 1992

2012an Lurra pijoen mende dago. Acción Mutante ekintzaile taldeak soilik egiten die aurre. Haien buruzagia espexetik irtetea, taldeak enpresari baten alaba bahitzen du, baina dena pikutara joango da Acción Mutanteko kide-aren arteko liskarengatik.



El día de la bestia
Alex Angulo,
Santiago Segura...
Sogetel, 1995

Angel Berriartua apaiza ondorio batera iritsi da 25 urtez Apokalipsia atertzen ibili eta gero. Antikristoa Madrilan jaioko da 1995eko abenduaren 25ean. Apaiza gazte heviyazale batekin elkartuko da mehatxu satanikoari oldartzeko.



Perdita Durango
Rosie Pérez,
Javier Bardem...
Lolafilms, Sogetel, 1997

Perdita Durango emakume ederra da. Bizitza gozaten du eskrupulu handirik gabe, bortizkeriaz gainez-kako giroan. Halako baten, Romeo Dolorosa ezagutu-ko du. Dolorosa lapurra, eta hilotz eta substantzia ilegalen trafikantea da. Zinez bikote ederra.



Muertos de risa
Santiago Segura,
El Gran Wyoming...
Lolafilms, 1999

Ninok eta Brunok Espainiako umoregile bikote onena izatea lortu zuten 60ko hamarkadan. Ziplastekoetan oinarrituriko ikuskizunaren atzean, baina, gorrotoa ardatz duen eta denboraz gaitzotu egingo den harreran korapiltsua ezkututzen da.



La comunidad
Carmen Maura,
Emilio Gutiérrez Caba...
Lolafilms, 2000

Juliak pisuak saltzen ditu higiezin konpainia batentzat. Egun batez, 300 milioi pezeta aurkitzen ditu hildako baten etxean, eta dirua bereganatzea erabakitzen du. Baina ez daki bizilagunek denbora luzea daromatela dirua eskuratzeko aukeraren zain...



800 balas
Sancho Gracia,
Carmen Maura...
Pánico films, 2002

Julian zinema espezialista ohia da. Egun, Almeriako basamortuko dekoratuzko herrixka zahar baten bizi da, lagun batzuekin batera gerturatu nahi duten ikusle apuruntzat western-etako eszenak antzestzen. Dena aldatuko da Julianen loba herrixkan agertzean.

Txakolinaren sasoia

Ardo txarraren zama aspaldian galdu du txakolinak. Esaterako, aurten lehenengo aldiz, "Guía gourmet" ospetsuak ardo zuri onenen artean sailkatu du Bizkaiko txakolin bat. Berriki txakolinaren oinarria den azken mahats uzta bildu da. Horretan zebilen Bizkaiko txakolingile garrantzitsuen den Ander Calvo bere bodegako (Aretxondo) atea jo genuenean. Han, lanez gainezka bazegoen ere, ardo gazte, arin eta alai hau zelari egiten den azaldu zigun.

Testua: **Jokin Aspuru** / Argazkiak: **Asier Mentxaka**



MAHATSA. Urriaren zehar batzen da mahatsa Euskal Herrian. Baina aurretik lan handia egiten da sasoi horretan fruitua puntuan egon dadin. Esaterako, urte hasieran mahastiak inausi egiten dira, lurren analisiak egiten eta neguko ongariak elikatzen dira landareak. Bestetik, gure herria hain hezea izanik, onddo ugari dago eta hauek sarritan gaixotzen dituzte mahastiak. Horregatik maiatzetik aurrera hamabostean behin tratatu behar dira mahastiak, *mildiu* eta *botritis* endemikoak direnak saihesteko. Abuztuan, uzta eguna zehazteko heldutasun kontrolak egiten hasten dira, izan ere, mahatsa bildu baino 25 egun lehenago ezin dira mahatsondoak tratatu. Aretxondon nagusiki hiru mahats mota lantzen dira: munemahatsa, Bizkaiko betiko mahatsa; hondarrabi zuri, Euskal Herriko erregina eta betidanik landu dena (Getaria, Bizkaiko eta Arabako txakolinaren oinarria) eta hondarrabi beltza, txakolin beltza egiteko erabiltzen dena; baina Errioxa hain hurbil izanik gutxi lantzen da.



01- Mahatsa jeneralean urriko lehenengo asteetan batzen da, arreta handiz. Mahatsondoan bertan fruiturik onena aukeratzeko da, baldintza onetan ez dagoena baztertuz. 02- Gehienez 20 kg. sartzen den kuxtetan gordetzen da, mahatsa osorik eta baldintza onetan bodegara eramateko. 03- Egin aurretik mahatsa pisatu egiten da. Aretxondo bodegakoek 2.500 kg.ko txandatan egiten dute ardoa. 04- Munemahatsa, Bizkaiko betiko mahats mota ardo bihurtzeko atarian. 05- Aretxondo bodega eta mahastiak, Mungian.






06

MUZZTIOA. Mahatsa batu eta gero zuzenean hasten da txakolina egiten. Lehenengo, fruitu aleak eta zurtoinak bereiztu behar dira, azken honek ezer onik ez baitio ardoari ekartzen. Prozesu honi *palua kentzea* esaten zaio eta makina berezi bat erabilia egiten da. Ondoren ateratzen den pasta antzekoa ontzi handi batera bidaltzen da, eta han lau ordutan temperatura jakin batean (10-14 gradu) mazeratzen uzten da pasta hori. Gero prentsatu edo zapaldu egiten da prentsa berezi batekin. Puntako teknologia erabiltzen dute Aretxondokoek eta, adibidez, erabiltzen duten prentsa neumatikoa da eta mahatsa zapaltzeko presioa eta denbora gustuaren arabera programatu ditzakete. Eurak kantitatearen aldean kalitatearen aldeko apostua egin dute eta ez dute mahatsa gehiegi zapaltzen. Muztio gutxiago baina hobea lortzen da horrela. Gainera, zukuak baino mahats aleen azalak ematen dizkio bere ezaugarriak ardoari; kolorea, zaporea, aroma...




07

06- Mahatsa eta zurtoina bereizteko makina berezia, "despalilladora". 07- Zurtoinak (erdaraz, "raspón" izenarekin eza-gutzen direnak). 08- Mahatsa *palu gabetu* ondoren lortzen den pasta argazkian ikusi daitekeen biltegi berezira (mazeratzaile termokontrolatua) bidaltzen da. 09- Palu gabetu ondoren lortzen den mahatsa pasta. 10- Muztioa lortzeko prentsa neumatikoa berezia. Hau mahatsa presioa eta denbora jakin batean prentsatzeko programatzen da.



08




09



10




11



12



13



14

FERMENTAZIOA. Muztioa altxairuzko ontzi erraldoietan egun baten edukitzen da grabitatearen indarrez, zikinak hondora daitezzen (honi erdaraz *desfangado* esaten zaio). Lan hau amaituta muztio garbia lortzen da eta ondoren miraria gertatzea baino ez da falta: hartzidura edo fermentazioa, hau da, mahatsaren azukreak berez-berez alkohol bihurtuko dira. Gaur egun teknologia berriak erabiliz fermentazio kontrolatuak (14 eta 16 gradutan) egiten dira eta hamalau bat egunez luzatzen da prozesua. Ondoren, honezkeroko txakolina den likidoa iragazten da (trasiegoa) eta bodegako ontzi berezi eta nitrogenoz inertizatueta lo egingo du txakolinak udaberria hasi arte. Orduan, atzera iragazi eta 4 gradu zero azpiko tenperaturan hamar egunez edukitzen da estabilizatu dadin. Eta, azkenik, botilatzea baino ez da faltako.

11- Altxairuzko ontzi erraldoi eta nitrogenoz inertizatueta egiten da txakolina. 12- Muztioaren zikinak. 13- Bizkaiko Txakolina jatorri izendapenak prozesu osoan kontrol zehatzak eskatzen ditu. Argazkian, Ander Calvo Aretxondoko laborategian. 14- Ander bodegan lanean. 15- Botilaratzea ia azken pausua da. 16- Etiketatzeko makinarekin txakolingileak bere sinadura jartzen du.



15



16

Aretxondo

Bodega honetako burua Ander Calvo da eta ogibidea familiaratik dator, batez ere Tomás Zarra osabarengandik. Aretxondo eta Aretxondo Bion-Etxea txakolinak merkaturatzen ditu. Lehenengoak hondarrabi zuri du oinarri eta bigarrenak, Bizkaiko txakolin zaharren oinarri-dekoa. Urtero 40.000 botila ateratzen dira bere bodegetatik eta segituan agortzen dira.

ARETXONDO
Mantzorri bidea, 9 MUNGIA
T.: 94 674 27 06

Gure eskualdeko ur ardatza da, baina duela oso gutxi hasi gara merezi duen moduan zaintzen. Metroko geltoki bati, ikastola bati eta ospe handiko eraikin bati izena eman die, baina beraren izenaren jatorria ez dago garbi, dakarren ura ez dagoen bezalaxe. Hain zaharra ez den jendea bertan bainatu da, baina gaur egun hartatik edatea kaltegarria izan daiteke. Laburra da, emari eskasekoa, ez oso ikusgarria eta landare eta aberetan pobrea, baina gurea da. Hori, behintzat, ezin zaio ukatu Gobela ibaiari.

Gobela

Gure ibaiaren erradiografia bat

Testua: **Unai Brea** / Argazkiak: **Asier Mentxaka**

Gobela ibaia, ibaia baino, erreka da hasieran, eta halaxe adierazita dago hainbat mapatan. Munarrikolanda mendiaren Sopelako magalean sortzen denetik Lamiako auzoan Ibaizabalera ailegatu arte, 12 kilometroko ibilbidea egiten du, Sopela, Berango, Getxo eta Leioa zeharkatuz.

Dena dela, Gobelak ez du beti luzeera finkoa izan. XIX. mendearen erdialdean Ibaizabal kanalizatu eta gaur Areeta, Lamiako eta Erromo direnak gunee lehor bihurtu arte, mareek guztiz baldintzatzen zuten ibaiaren ibilbidea, eta ez dago argi hura non amaitzen zen. Alberto Díez ikerlari berangoztarrak dioskunez, *“nik, mapa batean, gaur egun Bolako hondartza esaten zaion horretan itsasoratzen zela ikusi dut; bestalde, 1950ean lekuko bati entzun nion gaur Bizkaiko Zubia dagoen tokian akabatzen zela. Gizon hark 80ren bat urte zeuzkan hori*

esan zidanean, beraz 1870 inguruan jaioa zen. Bizkaiko Zubitik gorago itsasoratzen zela ere esaten da”. Díezek dioenez, Urdaibairen antzeko tokia irudika dezakegu zonaldea zelangoa zen jakiteko.

Gobela non hiltzen zen ez dago garbi, baina bai zelan ekin zitzaion azken zatiaren desbideraketari. Díezek berak azaldu digunez, *“padura hura sikatu zenean asmoa egon zen Gobela behin-betiko Bolako hondartzatik itsasoratu zedin zerbait egiteko, baina Máximo Agirrek, eremu guzti hura erosi zuen enpresa-gizonak, Lamiakonaino eroateko konbentzitu zituen”*. Agirrek uste zuen –edo agian bazekien, jakin– lur hartan lantegiak eraikiko zirela, eta Gobelako ura makinak errefrigeratzeko eta hondakinak botatzeko erabil zitekeela. Azkenik, bere helburua lortu zuen, eta Gobela gaur egun amaitzen den tokiraino eroan zen; ia Udondo ibaiare-

kin batera isurtzen da Ibaizabalera. *“Bizkaian kasu bitxia dugula esan dezakegu: itsasoari bizkarra emanez amaitzen den ibaia”*, komentatu digu Díezek.

Kutsaduraren eraso bortitza

Gazteenok Gobela zikin baino ez dugu eza-gutu, baina ez da denbora asko umeak haren ur gardenetan jolasten zirela. Industrializazioak kutsadura ekarri zuen, eta duela seiren bat urte berreskuratzeko lanak hasi arte zeharo ibai zigortua izan da gurea.

Josu Ateka Getxoko Udaleko ingurugiro teknikaria da. Berak eman digu lehengo egoeraren berri: *“Getxoko etxeetako hondakin likido gehienak Gobelara joaten ziren; ibaia baino, kolektorea zela esan daiteke. Animaliarik ez zegoen ia, eta sasiak eta zonalde hondatueta arruntak diren landareak besterik ez zeuden”*.




01



04



05



02



03



06



07



08



09

«Berreskurapen neurriak duela sei urte hasi ziren arren, Gobelak kutsatuta jarraitzen du, luzaroan egindako kaltea ez da-eta berehala konpontzen»

Lamiakoko ibarra babestu nahian

Gobela ibaian gaur egun dagoen gunerik aberatsena, biologiarren ikuspuntutik, amaiera da hain zuzen. Han, Lamiakon, ibarra eratu da, *“itsasadarrak pairatzen duen hondamen orokorraren barruan gizakiak gehiegi ikutu ez dituen gunetako bi”*, Gorka Ocioren berbetan. Ocio, Lanius elkarteko kidea da. 20 urtean dabilta lanean, eta azken garaioetako erronkari nagusienetakoa Lamiakoko ibarrak eremu babestu izendapena lortzea da. *“Urtebete inguru daramagu gai honekin; erakunde eta instituzio askorekin berba egin dugu, eta guztiak jarrera ona agertu dute gure eskaeren aurrean, baina, aldi berean, guztiak adierazi dute eskuduntza ez dagokiela beraien”*. Hain zuzen, Getxoko udalarekin, Bilboko Portuko agintariekin eta Bizkaiko Aldundiarekin berba egin dute; Espainiako Gobernuko Kostaldeetako Zuzendaritza geratzen zaie. Elkarrizketa egitea eskatu diote eta egoeraren berri eman diote eskutitzez, baina orainoz ez dute erantzunik jaso.

Lanius, elkarte ornitologikoa izanik, hegaztiez arduratzen da batik bat. *“Abra oso lekune aproposa da hegazti migratzaileentzat”*, azaldu du Ociok, *“betidanik hemendik igarotzen dira horien bideak, eta Lamiakoko ibarra atsedean hartzeko eta jateko aprobetxatu ohi dute”*. Baina gaur egun, Lamiakoko ibarrera mariskoa edo bestelakoak harrapatzen joaten den jendez beteta egoten da, eta horiek uxatu egiten dituzte hegaztiak. Bestalde, zikin samar dago, denboraz hondakinak pilatuz joan direlako. *“Garbitzea eta mantentzea erraz eta merke egin litezke”*, dio Ociok, *“eta onura itzela lortuko litzateke”*. Laniuseko kideak aipatu digunez, zurrumuruak dabilta Lamiakoko ibarrean eraikinak egin gura dituztela-eta. *“Hori gertatuz gero, hondamendiak ez du atzera bueltarik izango”*.

Getxon ez ezik, Gobelak zeharkatzen dituen gainerako herrietan ere gauza bera gertatzen zen. Eta ez hori soilik; ibaia bete-betean igarotzen da industri-guneren bategatik, Berangokotik batik bat, eta horiek ere ederto “lagundu” dute Gobela kutsatzen.

Orain, badirudi gauzak hobera doazela. Atekak 90eko hamarkadaren erdian abian ipini ziren berreskuratze lanen gainean berba egin digu: *“Kolektorea, hau da, hodi handi bat egin da, eta Getxoko 84.000 biztanleen hondakinak orain horra doaz, ibaira ailegatu barik. Kolektore hori Ibaizabalen azpitik igarotzen da eta Galindoko araztegitira doa. Han, garbitu eta ur berria albotik doan ibaira botatzen da”*.

01- Ibaia Aldapa auzoan. 02- Gobela Lamiakon. 03- Txori bat ibaian elikatzen. 04- Errotatxu errota Getxon. 05- Txukuntze lanak Erandion. 06- Ibaia Berangon. 07- Gobela Ibaizabalen hiltzen da. 08- Ibaia Areetan. 09- Lamiako.

«Bolue errekararen urak hartu ostean, Gobela asko hobetzen da, oxigeno gehiago baitu eta arrain mota gehiago bizi baitaitezke bertan»

Josu Atekak esan digunez, ia Getxo osoan funtzionatzen du sistema berriak, *“baina oraindik ere gauzatxo batzuk ditugu konpontzeko”*. Aipagarriena Faturakoa da; bere garaian, arazo teknikoak zirela-eta, ezin izan zen kolektorearekiko lotura behar bezala egin, baina berriki udalak lanei ekiteko lizentzia eman du. Badira beste gune batzuk. *“Bolue ibaiaren amaieran, eta Andra Mariko toki isolatuetan, baserri batzuk daude oraindik kolektoreara lotu barik. Gertatzen dena zera da: haien hondakinak kolektoreara eroatea garestiegi suertatuko litzatekeela”*. Getxon bada beste gune kutsatzaile bat: Berangorekin mugan dagoen gasolindegia. Hor, gasoil isuriak izan dira inoiz. Ez dira joaten Gobela ibaira zuzenean, Errotatxuren kanalera baizik (antzina errota hornitzeko egin zen kanal hori), baina azkenik, ibaiaren adar nagusira ailegatzen da zikinkeria. Neurri batzuk hartu dira administra-

zioaren aldetik hau saihesteko, baina orainoz arazoak hor dirau.

Getxorako ez ezik, berreskurapen plan-gintza eskualde osorako egin zen. Berangon duela urte eta erdi inguru dabil kolektorea; ez dugu Sopelaren berri eskuratzetik izan, baina Josu Atekak dioenez, Getxoko uraren kalitatea asko hobetu da azken boladan, eta horrek aditzera ematen du beste herrietan ere zerbait egiten ari dela.

Ibai pobrea

Hala ere, Gobela ibai kutsatua da oraindik, urteetako hondamendia ez baita egun bategatik bestera konpontzen. Azken boladan animalia gehiago ikusteko aukera izaten da, eta landareak zertxobait egin du hobera, baina ez gehiegi. Xabier Buenetxea baso-ingeniariak ibaiaren azterketa egin zuen iaz Getxoko udalak eskatuta, eta lan horren ondorio nagusiak azaldu dizkigu: *“Landare*

eta abereei dagokienez, Gobela ibai eskasa dela esan daiteke, hobetu den arren. Oso zuhaitz gutxi dago, gaur egun asko kanpokoak dira, eta inon ere ez da ageri ibai baten ertzetan egoten den baso motarik egokiena, altzak, alegia”. Arrainei dagokienez, ibaiaren lehen erdian oso giro kutsatuetan bizirauteko gai diren espezieak baino ez daude. Bolue errekarako urak hartu ostean egoera hobetu egiten da, Xabi Buenetxearen azalpenen arabera. Urak oxigeno gehiago du eta arrain gehiago dago. Hiruarantza nabarmendu behar da, arriskuan dauden espezieen zerrendan dago-eta. Bestalde, ibaiaren zati asko kanalizatuta daude, Getxon batez ere, eta horrek kalte egiten die arrainei zein landareei. Orain, gainera, Getxo osoan Gobela kanalizatzeko asmoa dago, momentuzeta diru iturri ezagatik plana geldirik bada ere. Ikusi beharko da zelan uzartzen den plan hori ibaiaren berreskurapenarekin. m

Begiraleei begira

Eskautak (*boy scoutak* esakunea baztertuta dago, matxistegia eta anglosaxoiegia izateagatik) irudi estereotipikoak baino jabe dira. Eskualdeko hainbat begiralerekin egin dugu berba, eta hainbat kontu azaleratu dira. Kontu beretakoak: umeekin lan egiteko zailtasunak, daukaten bokazio itzela... Hona, eskautak.

Testuak: Unai Brea Argazkiak: Asier Mentxaka



“Asko ikasten da umeengandik. Gauzak pentsatzera behartzen dute”

Sergio Hernando. 25 urte Erromoko Ardatza


Sergiok zortzi urte daramatza begirale Erromoko Ardatza taldean. “*Elizako taldea da, eta fedearrekin lotutako gaiak jorratzen ditugu, baina, neska-mutikoen edadea dela-eta, aisialdiaren ikuspegitik egiten dugu*”. Hain zuzen, hamabi eta hamasei urte bitartekoekin ibiltzen dira. “*Adin gatxa da, aldatzen ari dira, eta lotsa izaten dute lehen egiten zituzten gauzak egiteko*”. Haserretu, haserretu, ez, baina batzuetan “erre” egiten dela aitortu du Sergio, “*egun askoan ekintza bat prestatzen ibili eta neska-mutikoen, beste barik, ez dutela egin gura diotenean*”.

Haiengandik askotxo ikasten dela dio. “*Lehenik eta behin, pentsarazten dizutelako. Norberak ezbaian jartzen ez dituen gauzei buruz itaun asko egiten dute, eta gauza bakoitza hamaika bider pentsatzera behartzen zaituzte, jakinmin handia daukate-eta*”. Edozelan, Sergiok gozatu egiten du. Bokazioz dabil begirale (guztiak bezala), eta oso atsegina iruditzen zaio “*egin dudana ailegatu zaiela ikustea*”. m

Eleder Diarce. 23 urte Algortako Eskaut Taldea

Eleder Diarce berangoztarra Algortako Eskaut Taldeko presidentea da. Bost urte daroaz begirale, eta aurretik lau urtean ibili zen beste batzuen begiradapean. “*Niri ume nintzenean irakatsi zizkidatenak beste ume batzuei irakatsi gura nizkien*”. Dioenez, begirale krisialdia dago, euren behinik behin, “*sartu gura duten ume berriei ezetz esan behar diegu begirale nahikorik ez daukagu eta*”, eta bide batez, jendea horretara animatu gura du.

Algortako Eskaut Taldea apur bat berezia da mundutxo honen barruan, “*apolitikoak eta akonfesionalak*” baitira, eta “*inor ez dugulako atzetik*”. Elelderren esanetan, aisialdia lantzen dute, beste barik. Eskalada, amildegi jaitziera, espeleologia... ia asteburu guztiak asetzeko moduko egitaraua. “*Asteburu gutxi daukat niretzat, bai, eta sakrifizioa ere bada, baina niri dohanik eman didatenez neuk ere eman behar dut, bestela akabo dena*”. Den-dena pazientzia handiz hornituta, umeekin egoteak eskatzen du eta. m



“Niri dohanik eman zidatenez neuk ere eman behar dut, edo akabo”



“Eskaut taldeetan hainbat balore positibo lantzen dira”

Eunete Serrano. 21 urte Eleizpe Eskaut Taldea

Hamaika urterekin Getxoko Eleizperekir irteerak egiten hasi eta hamar urte geroago begirale bilakatuta dugu Eunate. Gure berbalagunengan oso ohikoa den ibilbidea, salbuespenak salbuespen. “*Bizitzaren momentu batean zeozer egitea edo ez erabaki behar duzu; nik hainbat taldetan sartzea pentsatu nuen baina, azkenik, Eleizpen geratzea deliberatu nuen*”. Zortzi urte ez dira alferrik igarotzen, eta nolabaiteko fideltasuna sortarazteko gai dira.

Hemeretzi urterekin, beraz, begirale izateko ikastaroan murgildu zen Eunate; oraindik ez du amaitu. Horrek argi uzten du ikasi beharrekoa ez dela edozelakoa. “*Lehen ikasturtean umeen psikologia ikasi behar da, baita talde batean lan zelan egin ere bai, umeekin zelango jokoak egin daitezkeen... Bigarren urtean espezializazioa dator. Psikologian sakontzeaz gain, eskaut taldeetako metodologia lantzen da*”. Eunatek eskaut taldeetan zabaltzen diren baloreen garrantzia azpimarratu gura du: autokritikatzen eta kritikatzeko ikastea, zailtasunei alaitasunez aurre egitea... m


Alex Batarrita. 20 urte Eskubeltz Eskaut Taldea

Zortzi urterekin Eskubeltzen parte hartzen hasi zen, eta duela hiru begiralea da algortar hau. Urte bakarraren buruan “ume” izatetik umeak begiratzera. Ez da adin diferentzia txikiegia? “*Ez, hasieran apur bat igartzen da eskarmentu eza, baina gero taldearen metodologian murgiltzen zara, ardurak zeureganatzen dituzu, eta gauzak aldatu egiten dira*”. Autoritate arazorik ez, beraz.

Bizimoduak sail honetan elkarrizketatu ditugun guztiak gazte-gazteak direla aipatu diogu. “*Bai, hala da. Jendeak 27 edo 28 urterekin utzi egiten du, nekatu egiten delako, edo bizitzan dituen beste kontu batzuek uzten ez diotelako*”. Eskubeltz Algortako eliza bati lotutako elkarte da; talde gehienek ere fede kristauarekin harreman zuzena dute. Horrek euren lana baldintzatzen du batzuetan. “*Badira fedearena oso ondo ez darenak, baina guk ez dugu oztoporik ipintzen umeak horrekiko begirunea agertzen badu*”. Txango guztietan otoitzaldia egiten ahalegintzen dira, baina –aitortu du–, “*nahiko kostatzen da*”. m



“Badira fedearena lar ondo ez daren umeak”




Iñigo Cámara

Getxon bizi zela piztu zitzaion Iñigo Cámarari (Bilbo, 1972) argazkigintzarako zaletasuna. Algortako Irudi Taldeko kidea da aspalditik eta duela gutxi Algortako Kultur Etxean "Mira" izena zuen erakusketa paratu zuen. Formato txikiko irudien bidez, argazkiak "begiratu" baino, "ikusi" behar direla proposatu nahi izan zuen erakusketan. Bestetik, William Klein argazkilaria miresten du Iñigok. Ez zaio paisaia ezta objektua ere gaitzat gustatzen, izan ere, pertsonak dira beti bere kameraren helburu, pertsonak eta euren alde humanoa. Utzi digun argazki sorta hau Parisera egindako bidaia labur batean hartu zuen. Turista legez joan zen eta bera bezala turistak zirenen irudi hauek hartu zituen.



Unai Elorriaga > Idazlea

“Ez dakit oraingo zurrumbilo honek nora eramango nauen”



Unai Elorriaga, bere atzean Serantes mendia ikusten dela

Itxura lotsatiaren atzean ezkututzen da Espainiako Literatur Sari Nazionala irabazteak ekarri dizkion zalapartetatik. Unai Elorriaga da, algortar petoa. 29 urteko gizon honi bat-batean etorri zaio ospea, “hainbestekoa ere ez” beraren ustez. Egunotako hamaikagarren elkarriketa du hau, eta mesedez *SPrako tranbia* eleberrari sarituak zertaz diharduen ez galdetzeko eskatu digu. Ez genuen asmorik.

—Zelan hartu dituzu hainbeste “zorionak”?
—Sinestu ezinik. Askotan pentsatu izan dut hau montajea dela, dena dela gezurra eta azkenean baten batek esango didala: ez duzu irabazi-eta! Eta kamera ezkutua agertuko da.
—Gustatzen zaizu ospea?
—Batuetan bai, beste batuetan ez. Eleberrira irakurri eta gozatu duen bat etortzen denean, gustura egiten dut berba. Baina batere interesatzen ez zaion bat etortzen denean, “zer sentitzen duzu irabaztean?” galdetzen hasten denean... Hori soberan dago.
—Espero zenuen irabaztea, bene-benetan?
—Ez. Finalista zarenean esperantza bat badaukazu, baina ez.

—Euskaraz zelako ala besteen maila hobea zelako?
—Euskaraz zelako, ez. Ez dauka garrantzirik. Azken baten obra itzulita dago, eta eurek beste edozein eleberriri bezala irakurtzen dute. Baina nire lehenengo eleberrira zen, ezezaguna eta gaztea naiz... Aukera guztiak neuzkan ez irabazteko.
—Idaztetik bizitzea ia ezinezkoa da Euskal Herrian. Pribilegiatu horietako bat izateko bidean zaudela uste duzu?
—Ez dakit oraingo zurrumbilo honek nora eramango nauen, baina espero dut bi edo hiru hilabete barru jakitea idaztera dedikatu naitekeen ala ez. Nahi nuke, bai.

—1998an hasi zinen *SPrako tranbia* idazten. Hasieratik zenuen buruan idazle profesionala izateko asmoa?

—Inondik ere ez. Argitaratzeko ere zalanztatan ibili nintzen. “Gero irakurtzen ez bada, kajoi batean geratzen bada itzelezko lana egin eta gero...”. Argitaratuko zela jakin

“Nire lehen eleberria, gaztea, ezezaguna... Aukera guztiak nituen ez irabazteko”

nuenean, beste duda batzuk etorri ziren: saltzen ez bada, ez badu inork irakurtzen... Eta orain duda handiagoa da, ze orain bai, gaztelaniaz argitaratuko da, baina gaztelaniaz ez badu inork erosten...

—Ondo saldu da *SPrako tranbia*?

—Ondo saldu da kontuan edukita non gauden eta euskarazkoa dela. 3.000 ale saldu dira, eta nik bati entzun nion Espainiako idazle batzuek euren liburueta 4.000-5.000 ale saltzen dituztela. Oso idazle eza-gunez ari naiz.

—Bigarren eleberrira amaitzen ari zara. Nola egin dezakezu lan horrenbeste zalapartekin?

—Zorionez, orrialde bat edo bi baino ez zaizkit falta. Hau guztia hiru kapitulu falta zitzaizkidala etorri zait, eta guztiz aurreikusita neukan nola idatziko nituen. Eskerrak.
—*SPrako tranbia* itzuli duzu gaztelarrera. Tentaziorik izan duzu ikutuak emateko? Azken batean, jatorrizko idazleak ez dizu leporatuko...

—Ikutu bat izango balitz! Zortzi mila izan dira. Euskarazkoa eta erdarazkoa mundu bi dira. Ahalegindu naiz izpiritua eta mamia berdín mantentzen. Baina forma asko aldatu da; estilistikoki, euskarak eta gaztelarak ez daukate zer ikusirik. m

esaterik**badut**

Esti Ezkerra

Sari nazionalak

O raindik ez diot deitu. Berria jakin osteko egunak berarentzat ikaragarriak izango zirela imajinatzen dut, eta ez dut gehiago erne-gatu nahi izan. Ez baita egunero Sari Nazionala irabazten, are gutxiago estraineko nobelarekin. Ziurrenik lerro hauek deia baino gehiago iritsiko zaizkio Unairi, eta, horregatik, zorionik berroenak bidali nahi dizkiot hemendik.

Albistea ezagutu nuenetik halako egoera batean zer sentituko nukeen irudikatzen ahalegindu naiz, eta guztietan hitz bakarra etorri zait burura: zorabioa. Aktoreek “beldur eszenikoa” deitzen duten horren moduko zerbait. Handik eta hemendik irakurri dudana-gatik Unairen sintomak ez dabilta hortik oso urrun. Ondo baino hobeto daki berak izendapenak ate ugari ireki ahal dizkiola, baina baita presioa areagotu ere. Zeren *SPrako Tranbia* lehen nobela izanagatik, hortik aurrera etor daitekeena zorrotz behatuko dute batzuek. Tertulietan mamu ikustezinak xaxatzen ibiltzen diren horiek bereziki.

Madril aldean esandakoek bereziki asaldatu dituzte hemengoak; ez dakit zergatik, ordea. Azken finean, nongoa da Sari Nazionala? Zer ordezkatzan du? Eta hortxe sortzen zait kexka. Zeren erabat ziur naiz gutako

inork ez duela erantzuna ahaztu, eta, hala ere, zapata berriak erosi dizkioten umea bezala jartzen gara Madrilgoen oniritzia jasotzen dugunean; burumakur, berriz, handik errieta egiten dugutenean. Aurrekoan idazlea den lagun batekin ari nintzela aipatu galderak agertu ziren. “Ez dugu ahaztu behar sari garrantzitsua dela” esaten zidan berak. “Bai, baina Alemaniakoek —herrialde bat esatearren— eman baligute bezala hartu beharko genuke, ezta?”. Hortxe geratu zen kontua, orduantxe oharu bainintzen beti ari garela lelo beraren inguruan. Bere garaian Atxagak Sari Nazionala jaso zuenen antzeko gogoetak plazaratu ziren. Baina orduko izendapenak bazuen zerbait berezia: euskara lurretik botatzen zutenei euskaraz gauza ederrak sor zitezkeela erakutsi zitzaion. Gaur egun ez dut uste horrelakorik behar denik. Alegia, nahikoa frogaturik dago euskarak beste edozein hizkuntzaren maila duela. Horregatik ez zait komenigarria iruditzen Unairen eta Atxagaren artean konparaketarik egitea.

Zinez artikulu hau hasi dudanean literaturaz soilik idatzi nahi nuela. Baina ezin. Gure errealitate nahasi honek nola edo hala beti uzten du bere marka. Baita literaturan ere. 4

Literatur Sari Nazionalak Getxon

Unai Elorriaga eta Bernardo Atxaga gurean izango dira

Bizarra Lepoan Euskara Elkarteko *Irakurzaleen Txokoak* hilero idazle bat gonbidatzen du bere lanaz irakurleekin berba egiteko. Datozen bi hilabeteetan Espainiako Literatur Saria jaso duten idazle euskaldun bakarrak ekarriko ditu bere txokora: Atxaga eta Elorriaga. Azaroaren 13an, asteazkena, 19:30etan, **Hasier Etxeberria** eta **Unai**




Elorriaga literaturaz berbetan arituko dira Itxasgane Kultur-gunean literaturzaleen aurrean. Eta abenduan, **Bernardo Atxaga** izango da hizlari Getxo Antzokian, hilaren 2an, astelehena, arratsaldeko 19:30etan.

Ezin gara kexatu! m

Gonzalo Iribarnegaray
idazle eta bidaiari getxotarraren eskutik

“Un mes en Bostwana”



Eskatu zure liburudendan!

Loteria
Sopela

Iparragirre 6, Sopela

Turikaldai

JOKIN GARATE BAYO Neguriko Etorbidea 9
T: 491 14 87
48990 NEGURI

KIMETZ GARATE AZURMENDI Aingeruaren etorb. 4B
(sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 GETXO

I
I aki
Bitxitegia
Ω
OMEGA AGENTZIA OFIZIALA
Villamonte T: 4302345
Algorta

Udazkeneko kontzertuak

Getxoko Kultur Etxeak antolatuta badatoz XVII. Udazkeneko Kontzertuak. Programa bikaina:

- Azaroak 15, ostirala, Andres Isasi Musika Eskolan Iñigo Iturrieta pianojolea, 20:00.
- Azaroak 19, asteartea, El Redentor elizan Joaquín Achucarro pianojolea
- Azaroak 20, asteazkena, El Redentor elizan Camerata Iberia.
- Azaroak 21, osteguna, El Redentor elizan Ukraniako Orkestra Sinfonikoa.
- Azaroak 22, ostirala, El Redentor elizan Angeles Blancas eta Patricia Barton (soprano eta pianoa).

Joaquín Achucarro pianojolea



Tapia eta Leturia Getxon

Getxoko Euskararen Jardunaldiak egitarauaren barruan eta Topagunearen "Udagoieneko Ostera" programa kulturalaren eskutik, azaroaren 30ean Tapiak eta Leturiak euren azken diskoa (*Hain zuzen*) aurkeztuko dute Getxo Antzokian. Hitzordua, esan bezala, azaroaren 30ean, larunbata, gaueko 10:00etan. Sarrera, 6 euro.



MusicaExMachina

Elektronika oinarri hartuta nazioarteko abanguardiako jaialdia Bilbon

Musika, ideiak, ekintzak, net-art, ikastaroak, filmak... gauza asko bilduko ditu Musica Ex Machina jaialdiaren lehenengo edizio honek. Egitaraua gaur egungo une kulturalan ageri diren partehartze transgresorenek osatuko dute. Eta jarrera hori da, hain

zuzen ere, jaialdi honek bultzatu nahi duena, nolabait *do it yourself* eta *punka*-ren oinordekoa. Jaialdia azaroaren 23 eta abenduaren 20aren artean egingo da Bilboko lau espaziotan: Arrebato, Bilborock, Espacio Abisal eta CM San Francison. m

Egitaraua

Aza.28 aben.20

MEN Musica > Musika elektronikoa industrialera eta esperimentalera Bilborock-en: Lee Ronaldo, White House, Sonar, Bous, Mattin, Nad Spiro, DJ Madel, Proyecto Mirage, Cat Hope.

MEN Mens > Gogoeta eta pentsamendua. Hitzaldiak CM San Francison, gaiak: elektronika, ziberkultura, internet, artea...

MEN Ars > Arte bisualak, erakusketak, instalazioak... Espacio Abisal-en.

MEN Phonovision > Discjockeyak eta videojockeyak elkarrekin. Kaniito y Ruy, Fifty Fifty...

MEN Kino > Zinema esperimentalak. KLF, Jesús Pueyo eta Mattin-en lanak

www.musicaexmachina.com



diskoak

Nere ekialdean
Benito Lertxundi
Ekarlanearn



Azken disko hau Benitoren landuena eta garatuena da, autorearen heldutasun artistikoa nabarmen uzten duena. "Hitzaz oroit" plazaratu zuenetik sei urte eman ditu kanta berriak grabatu gabe. Azken sei urteotan egindako hamaiaka abestik osaturiko lan eder eta dakarkigu oriotarrak, artean Fernando Pessoa bost olerki musikaturik.

Etseko uzta
Petti
Gaztelupeko hotsak



Kantari nafarraren hirugarren diskoa kalean da. Oraingo honetan bere alde elektrikoaren erakutsi nahi izan du Pettik, Neil Young bezala hor nonbait erdi-erkituan gordeta zuena. Kanta gitarrerok, sakonak, erritmikoak eta bihotzetik urdailera jotzen dutenak. Ez zaizu damutuko.

Erradiografia



Ezko taldeko musikariak entsaio batean

Jaio ziren: "Hasi berriak garelako esan daiteke, duela bi urte sartu ginen-eta musikaren mundu honetan. Algortako jaietan elkartu eta hantxe bertan hartu genuen taldea sortzeko erabakia". **Taldeko kideak:** Eneko San Román (baxua), Aitor Hernández (gitarra bakarlarria), Iñigo Mirantes (bateria), Unai Domínguez (gitarra eta koroak) eta Ion Yarritu (ahotsa). **Gustukoa dute:** "Metala, ska eta punka da gehien gustatzen zaiguna. Hala ere, bakoitzak badu bere gustu propioa. Adibidez, Aitorrek punka, Enekok ska".

Diskografia: "Oraindik ez dugu diskorik kaleratu, baina badaukagu Galizian egindako kontzertu baten zuzeneko grabazioa". **Besteak beste jo dute:** Sopelan, Getxon eta Ourense. "Aurten ausartu gara eszenatokitara igotzen" aitortu digute. **Euskal musikaren egoera:** "Larria da, oso larria. Hemen talde asko eta onak dagoz, oihartzuna eta ezagun izatea lor dezaketena. Baina kanpora begira oso zaila da oihartzunik lortzea. Bestetik, entsaiatzeko lokalen eskaintza oso txikia da eta arazo hori ere badaukagu". m


diskoak

Heldu artean
Mikel Urdangarin
Gaztelupeko hotsak



Kantari bizkaitarraren bosgarren diskoa. Bertan folk akustikoaren bidetik jarraitzen du, nahiz eta oraingoa bere alderik urbanoena erakustea erabaki izan. Kantu guztien artean bada bat katalanez abestutakoa. Aipagarriak dira teklatuaren garrantzia eta Jonathan Bews bibolinjole bikainaren ekarria.

Ni ez naiz Xabier Montoia
Xabier Montoia
Metak



1999. urtean bere azken diskoa argitaratu zuenetik ez dugu artista berezi honen musikaren berririk izan. Bederatzi hilabete eman ditu, lasaitasunez, lan berri hau borobiltzen. Disko honetan aurrekoan irekitako bideetan sakondu du Xabierrek. Azaroaren erdialdera kaleratuko da. Beraz, erne!

Tomas Miller-EI
Hechos contra el decoro
Metak



Thomas Miller-EI preso errugabeak 16 urte daramatza heriotzaren korredorean AEBetan. Urteotan hamaika aldiz ikusi du nola heriotz zigorra atzeratzen zioten. Bere aldeko sostengu taldeak disko hau aurkeztu berri du Thomasen defentsarako diru biltzeko. Eta gainera, diskoak primerakoa da!

> Nire disko kutunak JOSEBA MARTIN*



EUSKARAZKO DISKO KUTUNAK


01. Mikel Laboa "Bat hiru"
02. Hertzainak "Hertzainak"
03. Jabier Muguruza "Aise"
04. Negu Gorriak "Gure jarrera"
05. Haizea "Haizea"
06. R. Ordorika "Hautsi da anphora"
07. Benito Lertxundi "Zuberoa"
08. Errobi "Ametsaren bidea"
09. Itoiz "Espaloian"
10. Ama Say "Ikusi ditut umeak..."

BESTELAKOAK

01. Paul Simon "Graceland"
02. Miles Davis "Kind of blue"
03. N. Griffith "Other voices, other rooms"
04. Angélique Kidjo "Logozo"
05. D. Mercury "O canto da cidade"
06. The Romantics "The Romantics"
07. Antonio Carlos Jobim "Brasileiro"
08. Silvio Rodríguez "Días y flores"
09. Ramones "Anthology"
10. Bruce Springsteen "Born to run"

Mikel Urdangarin > Kantaria

“Norberak topatu behar du bere kabiarik gozoena; nirea musika da”



Mikel Urdangarin

Mikel Urdangarin abeslari eta egile zornotzarrak *Heldu Artean* diskoa grabatu du aurtengo udan, bere ibilbideko bosgarrena hain zuzen ere. Magisteritza ikasi zuen Mikelek, eta irakaslea izan da hainbat urtetan. Hasieran, irakaskuntza eta musika uztartzen zituen, baina duela hiru urte lehenengoa uztea erabaki zuen, biak batera ondo egin ezin zitezkeelakoan. Urtero disko bat plazaratu du ordutik hona.

—Konbentzi nazazu zure disko berria eros dezadan...

—Nik disko berria egin dut neure barruak asetzeko eta ez dut inor konbentzitu nahi; nahi duenak eros dezala.

—Bestela galdetuko dizut... Nola ase dituzu barru horiek?

—Barruko gogoetei (ez nuke kezka esan nahi) ihesbidea ematen saiatu naiz. Oso gertutik sentitzen dudana da; nire burutik pasatzen zenari kasu egiten ahalegindu naiz. Hori gaur egun normalean ez da egiten; ez kasu batzuetan, behintzat. Niretzat oso gauza kuttuna da, maitasun handiz egindakoa. Entzun nahi duenak hori topatuko du.

—Zure diskorik urbanoena ei da hau. Zer esan nahi du horrek?

—Tira, urbanoa... Agian letrei begira-edo. Letretan oso gertuko gauzez ari naiz, lagunartez, eta nire lagunartearen zati handi bat kaletarra da. Haietaz ari naizela paisaia urbanoa da, eta agian horregatik dauka kutsu hori. Hizkera bera nahiko urbanoa dela uste dut; ez da bukolikoa, ez naiz ari haizeaz, lurraz eta suaz.

—Gitarra hutsez hasi zinen, eta gero eta tresna gehiago sartuz joan zara...

—Bueno, lehenengo diskoan ere txelo bat bazegoen, baina egia da bigarren diskotik aurrera lagun gehiago izan ditudala inguruan. Ez dakit zeren arabera izan den,

lagunekin elkartu naiz diskotik diskora eta... Disko bakoitza bizitzako momentu bat da; momentu horretan jende batekin zaude, eta hori islatu egiten da.

—1997tik bosgarren diskoa da hau. Itxuraz, behintzat, langile handia zara...

—Esan behar da azken hiru urteetan ez dudala besterik egin, edo behintzat nire zereginik handiena hori izan dela, musika... Oso modu naturalean egindako lana da, batere bortxatu gabea, eta niretzat ez da inportantea zenbatgarrena den, gustura egotea baizik. Ez da inork agindutako lana, ez disketeak ez inork. Zenbakiei ez diet begiratzen.

—Bertsolaritzan ibilitakoa zara. Zerk bulztatu zintuen musikagintzara?

—Nik uste dut bertsotan kantatzeko grinagatik sartu nintzela, ez bertsotan aritzeagatik. Eta hortik atera nauena musika izan da. Nik kantatzeko eta musika egiteko go-goa beti eraman izan dudala uste dut, batzuetan ezkutuan. Azkenean, norberak topatu behar du kabiarik gozoena, eta nik musikan topatu dut kabia hori.

—Behin zuri eginiko elkarrizketa bat irakurri eta irudi bat geratu zitzaidan. Alegia, zuk gitarra ikasi zenuela eszenatokira atera ahal izateko. Egia da?

—Egia esan gitarrarik gabe ezin nintzen atera, batez ere bakarlari modura. Erabaki nuen gitarra behar nuela oholtza gainera irteteko, gitarrarekin banintzen nor jendaurrera irteteko inoren laguntza barik, eta horregatik hasi nintzen ikasten. m

Heldu artean

12 abesti ditu Mikel Urdangarinen azken lanak, gehienak berak egindakoak. Bitxikeria moduan, esan dezagun bat katalanez dela. Talde handi batek lagundu dio oraingoan Mikeli, eta horien artean Jonathan Bews bibolinjole eskoziarra nabarmentzen da.

KAMILTXO

lehen hartz
euskaalduna!

Kaixo
laguntxo!



27 €

bidalketa gastuak:
4,25 €

DEITU ORAIN

902 45 12 12

EGUN GUTXIREN BURUAN, ZURE ETXEAN

TRUK

902 45 12 12
IRUÑA • EUSKAL HERRIA

webgida



MOZILLA EUSKARATUA
> www.zuhar.net/mozilla/

Mozilla da gaur egun Microsoft Explorer-ek duen areririk nagusia. Eta Zuhar enpresakoek euskarara itzuli dute euren web orrialdetik nahi duenari eskaintzeko. Oraindik Mozillaren erabiltzailea ez bazara, zeri itxaroten zaude? Bill Gates-en laguna ez zara izango, ezta?

Hizkuntza: euskara

UMOREA
> www.sccpp.com

"Sabotaje contra el capital pasándoselo pipa". Izen luzea. Ideia zoroak. Diseinu alai eta zaindua. Testu dibertigarriak. Inork aurkitu al du ezer hoberik hor kanpoan?



Testuak: **Iker Merchán / iker@merchan.com**



Sarean eta euskaraz

Uste baina **aukera gehiago** ditugu Interneten geure hizkuntza erabiltzeko

Sarean euskaraz ibil daiteke. Mozilla nabigatzailearen euskaratzeaz gain (ikus alboko berria), Interneten badira beste hainbat lanabes euskaraz eskaintzen direnak. Adibidez, hainbat bolondresak euskaratu zuten *Google* bilatzaile ospetsua. Euskaraz egon arren, horrek ez du esan nahi emaitzak ezberdinak direnik. Baina euskaldunei bilatzaile hau erabiltzea erosoagoa gertatuko zaie. Bestetik, euskaraz propio egindako bilatzaileak ez ezik (*Aurki.com*, euskara hutsean eta *Kaixo.com*, elebitan) atzerriko lanabes indartsuak ere hasi dira agertzen euskaraz sarean.

Euskarazko posta zerrendak kudeatzeko sistema ere atera berri da. Berez, *Taldeak.com*

kudeatzaileak (hori baitu izena) *Yahogroups-en* antzera funtzionatzen du; edonork sor ditzake bere gustuko posta zerrendak beste internauta batzuekin harremanetan jartzeko eta horrela edozein jakintza mota bultzatu eta zabaldu.

Baina Interneten jakina da lanabesak itzultzearekin ez dela nahiko; edukiak funtsezkoak dira. Hau da, berdin dio nabigatzailearen botoian *Ir*, *Go* edo *Joan* jartzea, erdaretan idatzitako webgunek baino aurkituko ez baditu.

Hori da gaur egun hainbat webguneren erronka!

www.aurki.com / www.kaixo.com / www.taldeak.com

Zer ote da? GPRS

Mobilak eta Internet

Inoiz saiatu bazara sakelako telefonotik web orrialde bat ikusten bi arazorekin egingo zenuen topo: alde batetik, ia ezinezkoa da hain pantaila txikian ezer irakurtzea, eta, bestetik, faktura heltzerakoan Interneten egondako minutuak urrearen prezioan ordaintzen direla ikusiko zenuen. Hau da, teknologia arrunta (GSM) erabiliz gero, konektatuta ematen dituzun segundoak kobratzen dira, eta ez merke gainera.

Telefono berrietan datorren GPRSa aurrerapauso garrantzitsua da. Abiadura GSMa baino pixka bat arinagoa da (ez asko, egia esan) baina abantaila handi bat eskaintzen du: jaitziko informazioa ordaintzen da, eta ez informazio hori eskuratzen ematen dugun denbora. Horrela, web orrialde baten jaitziera bakarrik ordaindu beharko dugu, ez testua irakurtzen (edo hurrengo webgunearen helbidea idazten) ematen duguna. Oraingoz Hego Euskal Herrian Movistar eta Vodafonek bakarrik eskaintzen dute zerbitzu berri hau, zeren eta Euskaltelekoa erabiltzeko derrigorrez profesionala izan behar baita.

Gehiago jakin nahi duzu? www.telefonos-moviles.com/gprs/default.asp

aurkitudugu

Eunate Serrano

Denetarik



Interneten irudi harrigarrik edo barregarrik topatzen baduzu, bidali UKra. Interesgarrienak aldizkarian hilabetero argitaratuko ditugu. ukaldizkaria@telefonica.net



Jokoak sarean ¥
Txapelketak ¥ Internet ¥
Txat ¥ E-mail ¥ Lanak ¥

ETA AURRERANTZEAN

ordenagailuen zerbitzu teknikoa

Zubigane, 5 - 48600 SOPELANA
e-mail: 01sopelnet@terra.es
www.geocities.com/sopelnet

94 676 00 62 - Fax: 94 676

BILBO MICRO



“1982az geroztik soluzio informatikoak eskaintzen”

ELKARTE ANONIMOA

Colón de Larreategui, 25 / 48001 BILBAO
Tf. 4230212 / Zerbitzu teknikoa: 4230213

Testuak eta argazkiak: **Gonzalo Iribarnegaray****MUNDUKO BAZTERRAK** KROAZIA**Plitvice** lakuak

Duela oso urte gutxi balek zigortutako eskualdean, etnia, ohitura eta erlijio desberdinak elkartzen diren lekuan, ohi ez bezalako inguru ederra dago. Lurreko paradisu honetan besarkada berde batez lakuak, putzuek eta ihidoiek landaretza aberatsarekin bat egiten dute. Plitvice-ko lakuak dira, Kroaziako barruko aldean.

Lakurik garaienera hurbildu bezain pronto ikusten dudun lehenengo gauza ur azal leun eta lasai bat da, esmeralda kolore oso bizikoa eta horregatik zaila da bere bazterretako landaretzatik desberdintzea. Hala ere, hurreratzean eta barruan begiratzean, berdea desagertu eta ura garden-garden bihurtzen da, eta argi ikus daiteke bere baitan gordetzen duena. Arrainak igerian dabilta eta sakontasunean urperatzen dira, baina hondoko algetan ezkutatu arte ez dira ikusmenetik aldentzen.

Plitvice-ko lakuak UNESCOk Gizateariaren Ondare izendatu zituen 1979an. Maila desberdinetan hamasei laku, iturburu eta putzu ugari daude eta hauek guztiak elkartzen dituzten urjauzi mordoak osatzen dute inguru hau. Inguru honen jatorria ibai eta errekek dira, eskualde honetara ailegatzean aldaketa berezi bat izaten dutenak. Bertako algen gainean gertatzen den uren karbono kaltzikoaren sedimentazioak haiz kalkareo bihurtzen ditu algak, eta haiz



Laku, putzu, ihidoi eta urtegi ugari daude Plitvicen.

hauek landaretzarekin sinbiosian, uraren presioari aurre egiteko gai diren oztopoak eta dikeak sortzen dituzte. Hala ere, azal begetala hiltzen denean, haitza hauskorrago bihurtzen da eta ez da dabilen uraren higadurari aurre egiteko gauza. Honek guztiak esan nahi du Plitvice-ko lakuak etenik ez duen aldaketa pairatzen dutela eta, horregatik, euren kokapen, kopuru, tamaina eta sakontasun datuak hartzen diren momentuan baino ez dira baliagarriak.

Plitvice zeharkatzen

Ibilbidearen planoa eskuetan, lakuen artean dauden bide bihurrietatik behera abiatu naiz, tamaina guztietako zubiak zeharkatuz. Ibilbideak zortzi bat km. izango ditu eta jaitzierak 156 m. (639 kotarik altuenean eta 483

bajuenean). Untzi elektriko eta tren txiki batzuk ere badaude ibilaldiaren tarte luzeenak errazteko. Bazter bakoitzean uholde berri batek harritzen nau, hobi sakon batek edota ustegabeko urjauzi batek. Eta horrela paseoaren soinuak murmurio ezti batetik orro

«Garaiera desberdinetan dauden 16 laku dira»

gorgarria bihurtzen da. Patxadaz beheko lakura jaitsi naiz, eta han urjauzirik ikusgarriena azaldu zait. Plitvice uholdeak sortutako 78 metroko urjauzia.

Parke guztian landaretza ugaria da eta ur bazterretaraino heltzen diren baso abartsuak daude. Nire bigarren bisitan baso hauek ezkutazten dituzten bideak zeharkatu ditut eta



baita mendietara igo ere. Tontorretatik lakuen edertasuna ikus dezaket, eta bai euren etengabeko urjauzien soinu urruna entzun ere.

Plitvice-ko lakuak Balkanetara hurbiltzen den edozein bidaiarientzat ezinbesteko bisita dira. Eta ez bakarrik euren edertasunagatik, baita Kroaziako kosta eta irla magikoetatik hurbil daudelako ere. m

«Inguru honetan murmurio eztiak eta orro gorgarriak entzun daitezke»**Plitvice lakuak**

- **Non:** Plitvice-ko Parke Nazionala
- **Herrialdea:** Kroazia.
- **Zelan heldu:** Goi Adriatikoko errepidetik behera Senj hirira joan. Han barrukaldean dagoen Plitvice-ko norabidea hartu. Kroaziako herri garrantzitsuenetan bidaiantolatuak eskaintzen dira.

Informazio gehiago:

- www.studiacroatica.com/arh/97/04/0401006.htm
- www.lickosenjska.com/plitvice_e.html
- www.np-plitvice.tel.hr/np-plitvice/welcomee.htm

HURBILEKO BAZTERRAK**Bilano** lurmuturra

Itsaslabarren gaineko bideetatik bistak paregabeak dira



Oraingoan proposatzen dizuedan itsaslabar malkartsuetatik zehar doan ibilbidearen erdian dago Bilano lurmuturra, izen bera duen irlaren parean. Bidea, aldapatsua eta alferrentzat gomendagarria ez dena, Gorlizko hondartzatik gora abiatzen da eta itsaslabarretik paraje doa. Bistak paregabeak dira eta Plentziako badiaren edertasuna gozatzeko aukera izango dugu. Armintzarako bidean aurrera goazela, XVII. mendeko gaztelu baten hondarrak aurkituko ditugu, kainoi mehatxagarriak, hormigoizko lubakiak eta, jakina, itsaslabarren gainetik planeatzen dabilen hegaztiak.

Gorlizko itsasargiak –Bilano lurmuturra itsasoari iragartzen diona– bere distirekin bertako arrastiri eta gauak argitzen ditu. Apur bat aurrerago, gure oinpetan Bilano irla bere marraskari itxurarekin uren sakonetik irteten da, gure ibilbide honen zati luze batean gure laguna izateko. Punturik garaiena Er-

mua mendiaren tontorrean zapalduko dugu, 280 metrotan. Eta handik Armintzaraino eramango gaituen jaitziera samurra abiatzen da. Armintzan, hiru orduko ibilaldiaren ondoren, etorritako bide beretik itzul daiteke, edota nik egin nuen moduan autobusa hartu eta Gorlizzerako itzulera bidaiari atsedena hartu. m

Zelan heldu

- Gorlizko hondartzaren eskuinaldean, Astondora doan errepidea amaitu baino 200 m. lehenago, seinalatutako bide bat abiatzen da. Hiru orduko ibilbidea da.



Izarpila «ALBEko gaztetxoak»

Ba ote dakizu zein diren Algortako Bertsolari Eskolako gaztetxoak? Eta nork irabaziko duen aurtengo Bizkaiko Bertsolari Txapelketa? Bada ez ibili aiko-maikotan. Irakurri eta kantatu gure izartxoak erantzunak.

Testuak: ALBE Argazkiak: Andoni Crespo Astobiza - ALBE

Galderak

- 1- Zein da zure bertsolari idoloa?
- 2- Nork irabaziko du Bizkaiko Bertsolari Txapelketa 2002?



Ixaso Paia, 13 urte

- 1- Jon Lopategi.
- 2- Etorkizuna ikusi eta esateko da garaia: Bizkaiko txapelduna izango da Algortako Fredi Paia.



Jone Uria, 12 urte

- 1- Anjel Mari Peñagarikano
- 2- Igorrek irabaziko du aurten bala uste dut nik hara, behintzat Euskadikoan bezala urduri jartzen ez bada



Joanes Igeregi, 17 urte

- 1- Mañukorta
- 2- Oso gustora esango nuke txapeldun dela Joanes, baina beste bat esan beharke parte hartzen ez dudanez



Peru Vidal, 14 urte

- 1- Igor Elortza
- 2- Ni oso baikorra naizenez gero orain esango dut, hara: txapela aurten etorriko da Algortako eskolara



Beñat Vidal, 16 urte

- 1- Jon Maia
- 2- Bi izen nagusi badituztut nik eta nago duda-mudan; Durangaldean geldituko da txapela aurtengo hontan



Arrate Illaro, 13 urte

- 1- Sebastian Lizaso
- 2- Fredi Paia irabaztea da aurten nik nahi nukeena, baina Igor Elortza izango da garaile irtengo dena




M. Berekoetxea, 13 urte

- 1- Maialen Lujanbio
- 2- Fredik irabaztea nahi nuke ez dira hain txarrak ametsak, baina aukera gehienak ditu iazko Igor Elortzak



Ilargi Zuazua, 13 urte

- 1- Maialen Lujanbio
- 2- Ez dakit nork irabaziko duen ez dut horretan pentsatzen, baina nik beretan nahi nukeena Fredik irabaztea aurten



Iturria: XDZ

Solaskidearen SOSLAIA

Ondoko test erako galderei zuzen erantzunez gero, Aritz Lopategi bertsolaria hobeto ezagutuko duzu.

- 1) Noiz jaio zen Lopategi junior?
 - a) 1969ko irailaren 9an
 - b) 1972ko otsailaren 2an
- 2) Non jaio zen Aritz?
 - a) Muxikan
 - b) Gernikan
- 3) Zer dugu Aritz, ikasketen aldetik?
 - a) Topografoa
 - b) Kimikaria
- 4) Non egiten du lan Aritzek?
 - a) Ajangizten, Maier enpresako laborategian
 - b) Gernikan, Eroski Bidaiak agentzian
- 5) Zenbat bider izan da Aritz finalista Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusian?
 - a) Birritan
 - b) Behin
- 6) Eta Bizkaiko Bertsolari Txapelketan?
 - a) Zazpitan
 - b) Hirutan
- 7) Zein dira Aritzen zaletasunak?
 - a) Irakurtzea, argazkilaritza eta judoa
 - b) Bidaiatzea, parranda eta ping-ponga
- 8) Zein da Aritzen hurrengo saioa Algortan?
 - a) Abenduaren 1ean, Getxo Antzokian
 - b) Azaroaren 10ean, Hezetan auzoan

10ekotxikian Aritz Lopategi

- 1) Abenduaren 8an bertsozaleok ez dugu izango Aritz Euskaldun bertsoan ikusteko pribilegiarik. Zergatik?

Honezker Bizkaiko 7 finaletan egon naiz, eta pentsatu ez arren, azkenean kantsatu egiten zara hainbeste txapelketa jokatu eta gero. Egia esan txapelketara joatekotan gogotsu eta motibatuta joan behar dela pentsatzen dut, eta orain arte horrela joan izan banaiz ere, gaur egun txapelketara joateko motibazioa galdu dudala esan dezaket, eta horrela joatea baino, argi daukat ez joatea hobe dela.
- 2) Zelan ikusten duzu Bizkaiko bertsogintzaren egoera?

Aspaldian gazte berri asko dator eta bertsoan polito egiten dutenak. Beharbada gero ez dago plaza nahikoa gazte haurrentzako, eta hori izan daiteke gehiago landu beharreko ildoetariko bat Bizkaian.
- 3) Aritz, busti gaitzen. Zein zortzikote aurreikusten duzu aurtengo Euskaldunako finalean? Eta zein bikote buruz burukoan?

Eta nor txapeldun?

Aurreko finalistak denak ikusten ditut Euskaldunara heltzeko gai, baina baita nire iritzian maila handiko bertsolariak direnak eta aurreko txapelketan ateetan gelditu ziren asko ere (batzuk agian orduan ere pasatzea merezi izan zuten). Hala nola, Arkaitz Ugartetxea, Etxahun Lekue, Be at Gaztelurrutia
- 4) Aukeratu herri bat eta bertsolari lagun bat egun osoko bertso parranda egiteko.

Edonon Txiplasekin.
- 5) Definitu zeure burua bertsolari lez.

Lehen "segurua" nintzela entzuten nuen, orain ez dakit zer izango naizen.
- 6) Egizu bertsolaritzaren maisu handien zerrenda.

Sei izen behar ditugu. Txirrita, Xenpelar, Uztapide, Xalbador, Lazkao-Txiki eta Ega a.
- 7) Zein aldaketa egon da Aritz bertsolariarengan orain dela 10 urtetik hona?

Denborarekin beldurra galtzen eta konfiantza hartzen joan naizela uste dut.
- 8) Zein izan da oholta ganean bizi izan duzun unerik hunkigarriena? Eta lazgarriena?

Hunkigarriena: agian hiletaren batean kantatu behar izan dudanean. Lazgarriena: bertso txar, eskas, negargarri bat botatzen zaudela konturatzen zarenean (zoritxarrez sarritan gertatzen da).
- 9) Zer sentitzen duzu Uribe Kostara bertsoan etortzen zarenean? (erantzun presiorik gabe)

Emozio itzela, bezperan lorik ere ez dut egiten, horra joateko pozaz pozez!
- 10) Egiezu 8ko bat oraindik ere bertsozale ez diren getxoztarrei.

Getxoztarra, ez bizi / begiak itxita, bertsoaren mundua / hain baita polita; batetik poesia / bestetik musika, ea zaletzen zaren/ hau irakurrita!

BEGI-BELARRI



Elorri arteko lilia: Unai Itu... Elorriaga!

Amaitu da morrontza onomastikoa, amaitu dira behizainen arteko antzekotasun antroponimikoek sortutako zalantza metafisikoak (Unai Elorriaga txirindulariarentzat izango dira orain buruhaustekak). Algortako Bertsolari Eskolatik uzkur eta epel igarotako Unai Elorriagak literatura sariketen gailurreraino egin du salto. ZORIONAK UNAI, bertso eskolaren izenean. Gogoan zaitugu (ez har, arren, hileta sundarik esapideon). Gogoan ditugu eskolaren osteko bat-bateko sasibatzar amaibakoetako hautu-mautu kaustiko-hilaranteak. Gogoan ere zure begiradak, zure keinuak, zure barre algarak, zure ateraldiak, zure bertsoak, zure ikuspuntu eta ekarpenak. Baina oraindikarren ez dugunez galdu zu bertso eskolan berriro ikusteko eSPerantzarik, etor zakiguz bisitan, tranbian bada ere.

Testua eta argazkiak: **ALBE**



HIRUSTA



Bertsोजartzaillea: **Peio Unzurrunzaga**
Gala: **Unai Elorriaga**
Neuria: **6 puntuko berezia**
Doinua: **Trumoa ortzi beltzean hoska**

1
Idazle gisa bizi afanez
hasi zinen zu, suabe ekinez;
orduak maisu eta eredu
Kortazar zen, zure ustez. (bir)
Laster besteen eredu zu zeu
izango zara nahitaez,
izar handi bat eurak lez;
kategoririk ez duzu falta,
glamour pitin bat baino ez. (bir)

2
Ama ta Sonia hartuta aintzat
indar hartu du zure bizitzak,
inspirazio iturri horren
ondorioz datoz hitzak. (bir)
Kezka, sosegu eta orduak
dira zure lan baldintzak,
alperra ez zara behintzat,
ezaugarriok politikak dira
idazle maisu batentzat. (bir)

3
Kritikoak bat datoz zurekin
nahiz eta batzuk portatu zikin,
ez daude ados euskal gazte bat
gailendu izanarekin. (bir)
Ondo moldatu zarenez erdal
narratiba sariekin,
lanari gogotsu ekin,
ea Nobel-a jasotzen duzun
bigarren nobelarekin. (bir)

Iñaki Agirre “pariente”

Oraingo honetan, Leioako Peruri auzora hurbildu gara bertakoa den Iñaki Agirrerekin (pariente esaten diote herrian) berba egiteko. Nahiz eta kanpoan hainbat urtean beharrean ibili, Iñaki beti egon da baserri munduari lotuta. Semearekin batera, zenbait idi probatan ere parte hartu izan du. Hurrengo lerroetan, Iñakik, proba horien inguruan eta, batez ere, baserriko eta hiriko bizimoduen arteko ezberdintasunez esandakoak bildu ditugu.



Erretratuan, Iñaki Agirre

Testua: Urtzi Iglesias
Erretratua: Asier Mentxaka

—Perurin jaio eta bertan bizi izan zara beti, ezta?

—Bai, ointze irurotasapi urte. Mile ta bederatzireunde otamabosten. Bai, irurotasapi urte dekodas ta emen jaiota ta emen ilteko serean ba, baia ori es dakigun les nos ixengo dan ta selan... ta olan. Beste batzuk emeti alde eiten de, yon dire ba pisutera baserri itzite beste biximodu martza bat artute; baserriko... bixteko bakarrik, gogorra da. Pixka bat emengo ta beste pixka bat kanpotik... ostantzen... Orregatik jente askok itzi dau se serak gobiernok ta kamara agrariak ta orrek generok argitu bearren, gogortu eiten de; aldeanuri, ganaderuri lagundu bearren generok estuau imiñi, ta olan esin da. Baserrik emen ya es daus ta gu ilten garenen gastek eingo de an dala konpon maria anton. Auren sueldutxue illen... ta alantze, se fabriken sortzi ordu kasureko baie emeko baserriko bearra es da akabaten sekule; goxeko saspire ta laurenatan altzaten nas ni, kasureko; ganadu... beitu ia selan dausen, bedar apur bet bota... ta alantze pasaten dot denpore; denpore es se gauera-ko garriko miñas etorten da bat e? Se asurrek kilikolo batera ta bestera, segadorea dala ta gero batu ta sera... eskubiarra asko in bear da e? Oin ba klaro erramintak pe bastante onak dekus baie aik pe beres es datos bile yon bear da.

—Baina nahiago duzu hemen bizitzea pisu baten bizitzea baino, ezta?

—Niretzat bai kasureko. Pisure nosen bein yoten nas anaiana edo, baie estutu eiten nas an. Emen, atea irekite kanpon saus, kalen;

an ba bentanak, aszensora, eskallerak...es. Ombre, yon bear bada es dekosu beste serik yon bearra baño; baie ostantzen emeko, kanbiau bes pisurik oberenagaiti be. Pisun, jo! Goikok sera, o aulki yausi yakola edo ume txikerraren sarata dala ta edo beste dala ta, komunide, asamblea in bear da... Baie emen bixi, beste modu beten; sanoau.

—Baserrik kanpo ere ibili zara beharrean...

—Bai, ogetalau urte obratan ta ogei fabriken, berrotalau urte; amalau urtegas yon nintzen, mutikotxu. Anaie sartxue, lau urte, bera orti jardineruen serean ta ni obratara, ogetalau urte. Ta ogei ta ile bi fabriken. Ta ordun esne saltzen gendun; lau terditen gortara, ereitzi bei pare bat, ta seiretako, es bosta terditen, fabriken. Ta andi etorri gaueko amarratan ta gortara be sarri. Ta alantxe, oñes beti, tiki-taka tiki-taka, negu ta ude; guardasola, ur trajeas... orti bera.

—Egur bila ere joan behar izaten zendun?

Egur bile? Senbat bider ara Unbe ondora, oin txaletak in daus an baie. Artu erramak, senbat egongo dire? Igual iru-leu kilometro. Artu erramatxua ta andi gora etzerantza erramatxu beteas. Errotara bebai, ara

Berangora, orti Santa Anati yon ta etorri. Mutikotxu nasela, ni iños yon barik ta astori bota sakutxu ganera ta asto atzeta, tapatapa bertako portalerarten; “ba au ixengo da errote”. An errotarik: “ia morrosko, basatos?” “bai banator” ta: “bueno etorri egun ontan bile”, lau bost egun barru edo. Orti

geruk eta. Baie, ya ganadurik es dao, emen (Peruri aldean) ogei-ogetamar egongo dire, apur bet gitxi gora bera. Es dao, es dao, se ya sarrak, lelau esan doten modun, batzuk badoas ta beste batzuk itxin de ya; ta gastek... indar modurik es bada erabiltzen es dao seregiñik!

“Batzuk emeti alde eiten de, yon dire ba pisutera baserri itzite. Ni estutu eiten nas pisun”

Fadurati, deportibo dauen lekuti sereti, ordun es san egon kotxe, biribilik es esebe; motorran bat o bixikleta bat. Jitanuk ertzan, ni mutikotxu, beldurreas yoten nintzen; baie yon in bear, es san beste nor yonik. Beste anaie txikitxuau, nik paño bederatzit urte dekos gitxiau. Selako biximodu ba, aik pe pasa gendusen.

—Ganadurik badaukazu oraindino?

—Amairu deus, bost bei eta sei txal. Idik be bai, ta bueno, gero biorra; ta auntze batzuk or mendin, bost lau akerra. Ta alantxe ba, txori batzuk be atrapa lantzen bein, onek jil-

—Idiak daukazuzala esan duzu, probetan ibiltzen zara?

—Bai, bueno, lau bider ibil gara. Yon gara lengo aldin Andrakasera, Plentzi ondora, ta emen Romon be, Martiartun bebai San Antoniotan, ta San Isidrotan Getxon. Getxon iru busterrri ixen siren ta lotu gintzen bigarren. Martiartun, lau busterrri, ta lelengo; Romon bigarren ta Andrankan amakararren amalauti. Emen ibiltzen gara tratoren erruede iminte or batera ta bestera, idik apur bet arnasa artuteko... gero espabere... estutute bota; ori da personen modun. m

GURE? AZENTU (II)

Testua: Xabi Bilbao

Uribe Kostako (eta ingiruko) euskeran berba mota bi dauz: azentudunek eta azentubakok. Berba azentudunek azentu daraude beti silaba baten (batzuk lehelengon, beste batzuk bigarrenan edo atzeran); kasu baterako, *éuskerá, érdera, lapíko, neskáto, iñusénite, inportántzi* berba azentudunek direz. Ostera, *inglesa, frantzesá, platera, mutillé, diputaziño, alkate, Getxo, Sopela* berba azentubakok direz, ez dauke azenturik silaba bateri edo besteri lotute, baie bai koixten (hartuten) daude azentu batzuten, segun ze kontestutan erabiltzen direzen. Kasu baterako, horrek berbak banan-banan esaten baduz azkeneko silaba azentuez esango du: *inglesá, frantzesá, platerá, mutillé, diputaziño, alkate, Getxó, Sopelá*. Zeitik hori? Esaldiko parte bakoitxak azentu bet daro azkeneko silaban, eta esaten dun esaldi edo esakune berba bat bakarrik bada (eta azentubako), ba horretxek eroten dau esaldiko azentu azkeneko silaban.

Ostera, berba azentubakon ondoren berba osagarrik badoaz, azkeneko silabako azentu hori berba osagarri batek (akabukok) erongo dau:

mutillé, mutil bét, mutil formalá, mutil formal bateri
Getxó, Getxokó, Getxoko alkaté, Getxoko alkate barri

Honek berba talde duztik berba bakar bat lez esaten direz: “mutilbét”, “getxokoalkaté” eta abar, danak batera, azentu akabuko silaban dekon berba bat esaten dan modun.

Baie berba azentudunek beti gordeten daude auren azentu, eta ordun azentu bi agertuten direz, bat berbako eta beste esakuneko:

neskáto, neskáto gazté, neskáto gazte
éuskerá (edo éuskeré), gure éuskerá, bátgure éuskerá ederrá

Gaurkoz nahiko da. Hurrengo arten! m

Euskara ikasten dute

Txelo Gartzia (Getxo)



—Noiz hasi zinen euskara ikasten?

—Orain hamalau urte, baina hori ahaztuta daukat, eta orain...

bueno orain, orain dela hiru urte euskaltegi honetan hasi nintzen.

—Non ikasten duzu?

—AEKren Lauaxetan azken urte hauetan, baina lehen Bilboko Alde Zaharreko euskaltegian.

—Zein mailatan zaude?

—Esan dute zortzigarren mailan gaudela baina zazpigarren eta zortzigarren urratsen artean nago.

—Zerk bultzatuta ikasi zenuen euskara?

—Hemen bizitzeak.

—Zer da gehien kostatzen zaizuna?

—Aditzak. Batez ere hitz egiteko orduan, ez baititut ongi erabiltzen eta ez zait ondo ulertzen.

—Orain arte ikasitako erabiltzen duzu?

—Bai, etxean nire alabekin hitz egiten dut eta batzuetan nire senarrarekin.

—Zelan definituko zenuke euskara?

—Gure hizkuntza da, kultura da eta gustatuko litzaidake edozein lekutan, gure herrian, denon artean hitz egitea. m



Euskara Zerbitzu eta herriko elkarteetako kideak lan bilera batean

Gazteak eta euskara

Getxoko gazte elkarteetan euskararen erabilera bultzatzeko kanpaina hasi da

Getxoko Udaleko Euskara Zerbitzuak kanpainatxo hasi du herriko gazte elkarteek beren eguneroko jardunean euskarari leku gehiago eman diezaioten. Gazte elkarte multzoan hainbat sartu dira: gazteek osatutakoak, gazte edota umeeekin lanean aritzen direnak... Zenbait kirol eta kultur-elkarte ere egitasmo honen hartzaile dira, zentzu hertsian gazte elkarteak izan ez arren.

Abiapuntua gertakari soziolinguistiko nabarmen batetik dator: Getxon, gazteek euskara gehiago dakite nagusiek baino. Haiekin lan egiten duten elkarteetan, ordea, jakite maila hori ez da egunerokotasunean islatzen.

Ondoriook Euskara Zerbitzuak herriko 29 elkarteri igorritako inkesta baten emaitza dira. Euskara askoz gutxiago erabiltzen da erabil zitekeena baino. Nolanahi ere, jakite mailan ere hutsuneak daude, begiraleen eta langileen aldetik batik bat. Egoera hori iraultzeko, aipatutako kanpaina dator.

Lehenbizi, inkesta egin zuten taldeei aurkeztuko zaie (askok badute horren berri) eta, ondoren, hitzarmena sinatzea proposatuko zaie. Hitzarmen horren arabera, datorren urtean elkarteok euskaraz gehiago egiteko neurriak hartuko lituzkete, eta udalak, berriz, erraztasunak emango lizkieke lan hori burutu dezaten, arlo ekonomikoan zein azpiegiturretan. Emaitzak urte bat igarotakoan aztertuko dira. m

gure hizkuntzaren zerbitzuan!

Getxoko Udala Euskara Zerbitzua

Foru kalea 1, GETXO / T. 94 489 02 18
e-mail: euskara.teknikaria@getxo.net

Paisaia euskaraz

Merkataritzako **errotuluak** euskaratzeko dirulaguntza gehiago eskatu da aurtan



Errotuluak euskaraz ipini eta Udalak diruz lagundu dituen denda batzuk

Hirugarren urtez, Getxoko udalak denda eta bestelako zerbitzuetako erro-
tuluak euskaratzeko dirulaguntzak eskaini ditu. Joxi Arakama Euskara Zerbitzuko langilearen esanetan, aurreko bietan baino arrakastatsuago suertatzen ari da ekimena: *“2002ko lehen sei hilabeteetan, iaz urte osoan baino gehiago gastatu da dagoeneko”*. Udalak sei mila eta hamar euroko (milioi bat pezeta) aurrekontua du errotulazio kanpainarako. Honezkeror, hamahiru dende eskatu dute laguntza, *“eta milioi erdi pezeta baino gehiago eman ditugu”*. Gutxi dela eman dezake baina Arakamak argitu zigun moduan, *“dendari batek errotulua ipinita badauka, oso zaila izaten da aldatzea”*. m

Uribe Kostako V. Ipuin Leihaketa

Gazteen lanak abenduaren 17rako aurkeztu behar dira

Gazteen artean euskaraz idazteko zaletasuna bultzatzeko, Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak, Euskadiko Kutzaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren Kultura Sailaren eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Hizkuntza Politika Sailburuordetzaren laguntzarekin batera, Uribe Kostako V. Ipuin Leihaketa antolatuta du. Leihaketa hiru kategoriatan banatuta dago (9, 12 eta 17 urte artekoak) eta lanek bi eta bost orrialde arteko luzera izan beharko dute. Gaia libre da eta, jakina, euskaraz idatzirik egon behar dute. Partehartzaileek derrigorrez Mankomunitateko udalerrietan bizi behar dute edo bertan dauden ikastetxeetan ikasi. Esan bezala, lanak aurkezteko epea abenduaren 17an amaituko da eta Mankomunitateko Euskara Zerbitzura (Gatzarriete 2-4, 48600 Sopela) edota herrietako kultur etxetara bidali daitezke. m

TRUK KIROLAK

AUPA! ATHLETIC

KAMISETA

HELDUEN NEURRI GUZTIAK
S • M • L • XL • XXL

54,06 €

EUSKAL SELEKZIOA

KAMISETA

HELDUEN NEURRI GUZTIAK
S • M • L • XL • XXL

51,03 €

dentu!

TRUK

902 45 12 12

IRUÑEA • EUSKAL HERRIA

3,67 € BIDALKETA GASTUAK



gaizka escudero / villabotas-ekoa

Solomoa

sagar, mazusta eta perretxikoekin

Egiteko erraza da plater hau baina pazientzia apur bat behar da. Batetik, mazustak zartaginean ozpin eta azukrearekin su ahulean jarri saltsa loditu arte. Sagar zatiak, beste zartaginean gurina eta azukrearekin egingo ditugu su bizian azukrea karamelizatu arte. Solomoa ondo egiteko lehenengo zartagine edo plantxatik pasatu azala urrezatu arte. Kofiak txorrotada batek ez dio kalterik egingo. Gero, labean sartu barrukaldetik egin dadin, 10-15 minutu. Solomoak askatutako zukuarekin perretxikoak zartaginean salteatu eta gero esnegain apur bat bota eta su ahulean eduki saltsa loditu arte. Eta amaitzeko, prestatu ditugun osagai hauek guztiak, zure gustura platerean elkartu. ^m

osagaiak

txerri solomoa • sagarrak • mazustak • perretxikoak • esnegain likidoa
oliba olio • gurina • gatz • pipermi • okela salda • azukrea • ozpina



itsaso arana / jolastoki-koa

Mahasgintza

biodinamikoa

Mahatsa lantzeko era honen atzean muturreko ideologia oso bat dago eta honen sortzailea Rudolf Steiner izan zen. Biodinamika mahasgintza edo bitikultura organikoa da eta, batez ere, lur sailen fermentazioan jartzen du arreta. Bestetik, ardoari dimentsio berri bat ematen dio, aurrekari kosmikoak kontuan hartzen dituelako. Ilargia eta planeten kokapenen eragina aldarrikatzen du teoria honek, bai mahasgintzan eta baita ardo egiteko orduan ere.

Biodinamikak lurren fertilizaziorako osagai kimiko guztiak baztertzen ditu eta hauen ordeztzat jotzen dituzte estraktuak erabiltzearen aldekoa da. Hala ere, kobre sulfatoa erabiltzea onartzen dute.

Mahasgintza era hau Frantziako eskualde batzuetan egiten da, batez ere, Domaine Leroy, Domaine Huet eta Domaine Leflaive finketan. ^m



El Norte jatetxea

Saltsatan murgilduta

Duela hiru hartu zuen Mari Tere González berangozarrak Barrikako *El Norte* taberna. Jatetxe apala da, jantoki txikia duena; luxu bila dabilenarentzat ez da aproposena beharbada, baina apurka-apurka ospea lortu du inguruan, Mari Terek sukaldaritzan duen trebetasuna dela eta. Bera da sukaldari bakarra, eta alabak laguntzen dio. Gainerako lanak familiako beste kide batzuen artean banatzen dituzte.

Asteazken zehar inguruko obretan dabilen langileak hurreratzen zaizkie batez ere. Asteburuetan, berriz, bada Mari Tereren saltsa ederrek erakarritza joaten denik. Izan ere, espezialitateak saltsa duten jakiak dira (piper beteak, makailoa eta albondigak aipatu behar dira), kroketa eta tartekin batera. Gaur egun eguerdian baino ez dituzte ematen. Eguneroko egoten da zabalik, baina lanegunetan, arratsalde, itxi egiten dute. ^m



Argazkian, Saioa Brea jatetxeko zerbitzaria

EL NORTE / Elezalde, 10
Barrika (Bilbo-Plentzia errep.)
Eguneroko menua: 5,75 euro
Asteburuko menua: 9 euro
Telefonoa: 94 677 30 09

barrak

Legazpi taberna

Sopelan osperik handienetako taberna da Legazpi. Duela 32 urte zabaldu zuten, eta 12 dira Santi Trueba eta Juan Carlos Hoyuelosen esku dagoela. Legazpin goizean goizetik topa daitez-

ke pintxo ederrak. Ez dira delicatessenak, baina bai ugari eta goxoak. Tortila arrunta eta beteak, kroketak, solomoa, sandwich begetalak... Asteburuetan, arrakasta handia izaten dute txibierroek (fama handikoak Sopelan); sukaldariak eskaerari ia aurre egin ezinik ibiltzen dira zapatu eta, batez ere, domeka eguerdian. Badaude nekora, magurio, tigreak... ere. Gauetan, asko dira olagarrak dastatzeko bertaraten direnak, galiziar eran ondo prestatzen dute-eta. Dena den, eta gosez geratuz gero, lasai. Legazpi jatetxea ere bada; menua, hamburgesa, ogitartekoa zein plater konbinatua jateko modua izango duzu. ^m



Argazkian, Santi Trueba

Legazpi taberna. Iparragirre 1, Sopela
Telefonoa: 94 676 02 65

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA
ezagutzen al duzu?

herriko pintxorik onenak ditugu etorri eta probatu!!

Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

Erosketa etxera eroaten dogu!!

Ugari
supermerkatua

ORDUTEGIA

Lan egun eta zapatuetan: 9:00-14:00 / 17:30-21:00
Domeka eta jai egunetan: 9:00-14:30

Gatzarriñe 5, % 94 676 19 99 LARRABASTERRA

udondo
taberna
zatoz!

Lehendakari Agirre, 2
T: 94 463 00 45 - LEIOA

TRUK

ardoak

«Luberri, dastaketan puntuazjorik altuena jaso duen ardo, hitza batean esanda, sekulakoa da»

Bartolome Sánchez
-Mi Vino- 2002ko urtarrila

Eskaintza Monje Amestoy-Luberri Upeltegietako Errioxako ardo



Eskaintza
6 botilako erroa

Luberri Ardo Beltza 3 botila

Biga Ardo Beltza 3 botila

29,90 €


+ 4,44 €
BIDALKETA GASTUAK

Biga⁹⁸ Luberri

DEI IEZAGUZU ETA EGUN GUTXI BARRU
ZURE ETXEAN

EDO OPARITAN ZUK NAHI DUZUNARI BIDALIKO DIOGU
TRUK
902 45 12 12
IRUÑA • EUSKAL HERRIA

VILLABOTAS
JATETXEA



Menu merke eta bariatuak
Especialitateen karta
Giro atsegina

T: 430 43 33
Villaondoeta 2, ALGORTA

AITOR BASABE > sukaldaria

“Oraindik erosketak egitera joaten diren horietakoa naiz”



Argazkian, Aitor Basabe, *Arbola Gaña* bere jatetxean. Alboko orrialdean, jatetxea.

Hamalau urterekin bazekien sukaldari izan nahi zuela eta horrela izan da. Galdakaoko eskolatik atera ziren lehenengo promozio arrakastatsuetako kidea da Aitor Basabe, gaur egun, Bilbon dagoen jatetxerik ederrenaren buru eta jabea: *Arbola Gaña*, filosofia modernista eta minimalista batek inspiratu duen Bilboko *Arte Ederretako Museoko* jatetxea. Hileon, lehenengo urtebetzea ospatuko dute.

—Aitor, zertan da zure sukaldaritzaz? —Hemen jatea sakratua da eta gauza jakina da, sukaldaritzaz oso maila altua duen eskualdean bizi gara. Nik bide horretan pausu bat gehiago eman nahi dut. Gauzak oro har, aurrera joateko, hasieran bultzada mugimendu bat ematen da eta gero erresaka etortzen da. Gehiegikeriak ere egiten ditugulako. Batzuek egiten dugun sukaldaritzari, autore sukaldaritzaz edo inobadorea deitzen diote. Niri gehiegi iruditzen zait. Kontua apur bat aurrerago joatea da, beste barik.

—Sukaldariak erreferente sozial garrantzitsuak dira gurean?

—Gaur egun sukaldariari eskatzen zaion betebeharrak sozialak baloratuta dagoela uste dut eta hori kaltegarria delakoan nago. Komunikabideetan ingeniari nuklearrek baino leku gehiago betetzen dugu. Niri sarritan aurpegiatzen didate mahaietara agurtzera ez naizela ateratzen. Ez zait gustatzen. Sukaldariaren enbajada bezeroari platerean jartzen diozuna da eta ez besterik. Oso barregarria izan zaitezke, baina platerean gauza onik jartzen ez baduzu, gauzak bere horretan geratzen dira.

—Modak daude jatearen munduan.

Gaur egun zer nabarmendu daiteke? —Fusio sukaldaritzaz batetik, betiko platerak arintzen zituena, aparren sukaldaritzaz batera pasatu ginen, Adriáren korrontearen eragin handiz. Eta orain sukaldaritzaz minimalista, Japoniako ikutuekin (puntuetan oinarritzen dena, arraina ez da hainbeste egiten...) gailentzen ari da. Ekialdeko eta mendebaldekoaren fusio arraro bat. Esaterako, hegaluzegordina gazpatxo saltsa hotz batekin eta oliba sikuekin presta dezakezu, baina egia da gero plater hori nekez saltzen dela. Izan ere, gustua jendeak nahi duenaren aurretik doa beti. Badago oso jende irekia, harkorra baina baita oso klasikoa ere.

“Sukaldariari eskatzen zaion betebeharrak sozialak baloratuta dagoela uste dut”

—Eta ardoekin, zer gertatzen ari da? —Oso eboluzio argia izan da, begibistakoa. Batez ere, ezaugarri jakin batzuk dituen Errioxa edaten duen eskualde batean bizi gara. 94/95ean asko igo zen ardo hauen kalitatea baina baita prezioa ere. Ribera edota Priorato ardoak ere oso garestiak ziren, baina prezioak berdindu egin ziren orduan eta jendea probatzen hasi zen. Orain egurra garbiagoa nahia go, ardo gazteagoa, mahatsaren lore tonuak errespetatzea... Aitzindariak egon dira oso lur pobreako eskualde batzuetan:



Priorato, Toro... Dozenaka urtetik gorako mahatsondoak ere topatu zituzten eta oso gauza onak egin dituzte. Ardo hauek, ez dira igual bost botila edateko, ez dira betiko Errioxa bat bezain erraz edaten. Hiru lau kopa hartuta asko goza daitezke. Baina esan behar dut, ardoarekin emakumezkoekin gertatzen den gauza bera gertatzen dela. Batzuei ilehoriak gustatzen zaizkie, beste batzuei beltzaranak eta beste batzuei guztiak. Ni hirugarren kategoria horretakoa naiz (barre).

—Erosketak zuk zeuk egiten dituzu? —Bai, bai, erosketak egitera joaten diren horietakoa naiz. Gozatzen dut, arraina erosten, edota Gernikako azokan, Ordiziara ere joaten naiz oso perretxikozalea naiz-eta, Erriberako merkatura... —Zurea bezalako jatexera joateko ahol-

“Nire ‘enbajada’ bezeroari platerean jartzen diodana da, eta ez besterik”

ku bat emango zeniguke? —Plateri jartzen dizkiogun izen ponpoekin sarritan ez da jakiten ondo zer eskatu. Onena, bertakoen aholkuei jarraion egitea da. Horrela bezeroa pozik aterako da edo, sikan, errore maila txikiagoa izango da.

—Non bazkaldu dezakegu ondo? —Ondo jateko bizkaitarrok Gipuzkoara joateko ohitura daukagu, eta hemen, Bizkaian badira zazpi-zortzi leku nahitaez ezagutu behar direnak: Zortziko, Kubitas, Jolastoki, Goizeko Kabi, Gaminiz, Etxanobe Euskalduna...

—Sukaldari moduan zein da zure helburua, zure jomuga? —34 urte ditut, eta gustatzen zaidana egiteko zortea daukat, egia da. Gainera aspaldiko lan talde zoragarria daukat. Nire helburua? Nirekin lan egiten duen jendea eta baita jatexera datozen bezeroak ere, eroso, pozik egotea. Besterik ez. m

Arasa
Sukalde eta Komunitarako Ekipamendu Osoa
Barnekaldeen zaharberritzeak eta dekorazioa
Sarikobaso, 44 • Tel/Fax: 94 430 11 91 • 48990 Algorta

EREAGA
Bidaiak
Autobusak
T: 94 453 08 16 - 609 405 988
GETXO

GOIZEAN
Gozoki eta prentsa, gutxi denik
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixxarrieriak
Orduña Mendatea 1 T: 430 22 13
GETXO T: 460 02 88
ALGORTA

GAVRKO
GIZONENTZA -
KO MODA
Telletxe 5
ALGORTA
T:

Mar a Jes s
ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA
Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA
HARTU TXANDA

BEROGAILU ETA ITUR -
T: 430 53
HIRURAK
Sarikobaso 15

Errotalde ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO



prentsa ¥ aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)
T:94 430 69 42 /ALGORTA

CALENDOS RIKI

UMEAK-GAZTEAK

Kale Nagusia 30 - T: 4645543 - AREETA



TXIBERRI edantokia frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15

[horoskopoa]

URA

t



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Etxetik urrun egon nahi duzu, askatasun egarriz zaudelako da. Ondo etorriko zaizu bidaiatxo bat egitea, baina zure familiarekin harremanak hautsi gabe. Gogoan izan nondik zatozen eta nortzuk egon diren beti zure ondoan.

AITZURRA

t



(Martxoak 21 apirilak 19)
Zuk baino esperientzia gutxiago dutenei ematen dizkiezun aholkuak oso baliagarriak dira. Badaude adiskide batzuk zure aholkuak onartzeko orduan, aurretik tronpatu eta gero arrazoi zenuela aitortzen dutenak.

GARIA

t



(Ekainak 19 uztailak 18)
Ez ahaztu maite dituzun pertsonak. Harremanak hilkorrak dira, egunero zaindu beharko zenituzke. Agian opariren batek edo sorpresa batek elkarren arteko maitasuna berpiztu eta sendotuko luke. Zeozer egin!

META

t



(Irailak 17 urriak 16)
Azken bolada honetan oso baikor eta energia handiarekin zabilazanez, oso baliagarria izan daiteke zure inguruan dagoen pertsona horri laguntzea, benetan behar zaitu eta. Lan arloan edozein oztopo gaindituko duzu.

OTSOA

t



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Bizitzan zuzena eta zeure arduren erantzule izatea ez da lan edota ikasketetara mugatu behar. Bizitza askoz gehiago ere bada. Lehenik eta behin zeure burua dago, zu ondo ez bazaude besteiei ezingo diezu lagundu.

HOSTOA

t



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Ideia berritzaile asko izango dituzu, baina buruan dituzun proiektu horiek guztiak gauzatu beharko dituzu. Baliteke, orduan, zeure buruari itxura aldatetako egitea, baina kontuz ibili, eta ez galdu zeure nortasuna.

LASTOA

t



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Zure bizitzako momentu eta egoera onenean ez zaudela guztiok badakigu. Zuk dena beltz ikusten jarraitzen duzunez, zure ondoan daudenekin fidatu. Ohitu zaitetz zure buruari epe luzeko helburuak ezartzen.

HAZIA

t



(Urriak 17 azaroak 15)
Gaizki ulertuengatik eztabaida bat baino gehiago izango duzu, batez ere zure adierazpide askotan behar bezala ulertzen ez delako. Zure ideiak ordenatu eta hitz egin baino lehen. Osasuna: zaindu zaitetz!

ADARRA

t



(Otsailak 19 martxoak 20)
Ezin duzu egun osoa iraganetik bizi, beti txarto eginak gogoratuz. Gauzak ezin dira aldatu, baina zeure jarrera bai. Orainaldia da balio duen gauza bakarra, badakizu: carpe diem! Bizitza behin bakarrik bizi dugu eta!

EGUZKIA

t



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Bizitzak hamaika buelta eman dizkizu: adiskide berriak, bikotea aldatu, lanbidea ere bai... Denbora laburrean zure bizitza hankaz gora jarri da. Agian, aldaketa guztiak lasaitasunez aztertu beharko zenituzke.

IRATZEA

t



(Abuztuak 18 irailak 16)
Espero ez zentzuen gertaerak. Dena alde aurretik kontrolatuta izatea gustatzen zaizu eta bat-batekotasun honek guztiz nahastuta utziko zaitu. Lasaitasunez hartu egoera berria. Zure ahaleginak baloratuko dituzte.

NEGUA

t



(Azaroak 16 abenduak 20)
Gauzak ez badira behar bezala atera, ez zaitetz larritu. Horrelako egoeretan zure kabuz arazoak konpontzen ikasi behar duzu, zeu zeure erabakien erantzule izanik. Jarrera aldaketa honek etekin paregabeak eskuratzeko parada emango dizu.

Lur planeta. Lurreratzen.



Mendixka haren gainean etxetzar bat ikusi dut. Lurlanetarako tresnez armaturik herriko morroi haserretu mordoak orpoz orpo jarraitzen dit. Lasterka egin barik pausua azkartuko dut, beharba nire bila datoz eta ez dut betiko moduan barregarri geratu nahi. Krokodiloak despistatzeko zig-zagean ihes egitea oso aproposa dela badakit, hortaz teknika hori erabiliko dut eta ea nire amamak bair zorte hobea daukadan. Izan ere, zig-zagean alde egin barik txarlestona dantzatzen hasi baitzen.

Etxetzarraren ateak bertan behera jausi dira nirega rotzerakoan. Edo abandonatuta dago edo ez dute komunitatea ordaindu. Armairu bat zabaldu eta neska ilehori, lodi eta ergel bat aurkitu dut. Motozerra bat duen zoro bat segika duela esan diti. Ar mairua itxi dut. Urduri, sukaldean sartu naitz. Inguruarekin mimetizatzen saiatzen naiz, zekalazto ogi aurpegia jarritz. Baina ezinezkoa da herriokina engainatzea eta horrenbeste izerdi botatzen dute.



Zitzu bizian ihes egiten dut baina teilatuko artenaren alboan harrapatu naute azkenik. Bide batez instalazioak akats bat dagoela esan diet eta zinez eskertu didate errezko gurutze batean ni josi baino lehen. Bat-batean pertsona Gran Hermano ikustera paratu dira. Besteek bidezko epaiketa bat izan dezadan gela batean sartu naute. Unibertsoaren ordena aldatzeko asmo gaiztoak leporatzen dizkidate, gerra interplanetario bat piztu ketenak, eta ondorioz hominiens espeziaren nagusigoaren bukaera. Eta tintera eroan jarraituko du...

Ados... geure arrazaren bizi iraupenaren aldeko borroka, unibertsoan bakarrik ez gaudela demostratzea, gure mundu biak aurkitzeko ilusioa eta superazio pertsonala delituak badira... erruduna naiz. Baina erabaki bat hartu baino lehen, zeure bihotzei galdetu, nire begietara begiratu eta esadazu: oia zure tako inork inoiz Lurra inbaditzeko gogorik izan ez duen? Hain guztia esan eta gero, ni libre uzteko gauza ez bazarete... bazarete sekula erabat libre izango! Eskerrik asko. Herentxe duzue tintearen zornare hitzok hunkituta, martiri moduan zergadun baino baliagarriagoa naizela erabaki dute. Etxeare teilatuan gurutzean josita utzi naute, esan didatenez Jesus deizen zen morroi baten antzera, Judas izeneko bati mesanotxe,





● zure **dirulaguntza**
behar-beharrezkoa
dugu!!!

● **Boluntzarreta**

BBK 2095 0121 10 9102483676
sartu zure laguntza gure kontu zenbakian

● **UK Uribe Kostako Aldizkaria** 171 posta kutxa / Amezti 6, 4. solairua 5. bulegoa / 48990 Getxo
ukaldizkaria@telefonica.net / tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31 / bulego ordutegia: 08:00 / 15:00

irabazi bi lagunentzako menu bat GARDOKI Jatetxean



Nor da?

- *Donostian jaio zen 1934an*
- *Medikuntza ikasketak burutu zituen*
- *Hautzaroko zati bat Lekeition eman zuen*
- *Bertold Brecht-en poemak estimatzen ditu*

> Aurrekoaren erantzuna: Alex de la Iglesia

> Irabazlea: * **Alazne Legarreta**

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean
bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
ukaldizkaria@telefonica.net / faxa: 94 491 58 31

Gardoki
Jatetxea



Mendieta kalea 47

Sopela

Telf. erreserbak: 94 676 07 61
astelehenetan itxita



ARGAZKIA, IMANOL TORRONTATEGIK UTZITA

Bittor Egurrola

Mamarro taldea, 1955.

Algortako San Nikolas plaza inguruan 1940ko hamarkadaren bukaeran zebiltzan 50 lagun inguruk osatzen zuten Mamarro taldea. Argazkian azaltzen direnak Ereagako Olinpiadetan eskuratutako sariak ospatzeko Mamarro tabernan bazkari baten elkartu ziren. Irudian taberna parean daude eta futbol, atletismo eta esku pilotan lortutako kopak eskuetan dituzte. Gaur egungo Mamarro taberna lehen El Arco deitzen zen, eta oraindik ere sarreran antzinako mahasparrek eta egurrezko arkuak irauten dute. Taberna 1943an zabaldu zen eta jabea Pablo Sánchez "Pablín" zen. Ondoren, laguntalde honetako baten eskuetara pasatu zen, Lauri, eta honek El Arco-ri izena aldatu eta taldearena jarri zion: Mamarro

Lehenengo lerroa: Mikel Fullaondo, Luis Mari Zelaia, Imanol Garate / **Bigarren lerroa:** Jon Gereñu, Jon Ander Salaberri, José Mari Bilbao, "Mendi" (GB), Eduardo Argaluzza (GB), Andoni Bengoetxea, Jon Uriarte, Kike Prieto, ?, Pedro Domínguez, Manolo Jiménez / **Hirugarren lerroa:** Jokin Garate, Gotzon Garamendi, Jon Uriarte "Viejo", Mikel Salaberri (GB), Jon Martín
Laugarren lerroa (belauniko): Lauri, Javier Albeniz, Roberto Mardaras, Martín Aurrekoetxea
Bosgarren lerroa (lurrean eserita): Pedro Iturriaga, Rai Montes, José Luis Ajuria, Iñaki Sarria, Imanol Torrontegi, Jose Manu Martín

[aitormenak]

ANA URRUTIA > telebistako aurkezlea

“Eguneroko gauza txiki-
etan ilusioa jarri behar da”



Zure izaera definitzen duen ezaugarriren bat...

Alaia, baikorra eta pertsona irekia naizela esango nuke.

Zein da zure akats edo maniarik nabarmenena?

Nahiko burugogorra naiz.

Zure haurtzaroko oroitzapen bat... Bakioko hondartza.

Zein da gehien miresten duzun pertsona?

Nire aita.

Zein da pertsona batengan gehien baloratzen duzuna?

Gardena izatea, baina gardena zentzu sakonean, hau da, pertsona naturala, zintzoa, argia... izatea, dena batera.

Zer da jarraitzaile batek esan dizun gauzarik ederrena?

Etxean triste zegoen pertsona batek, nik eguraldi ona iragarri ondoren alaitu nuela esan zidan.

Zein komentariok egin dizu kalte gehien?

Normalean oso denbora gutxi daukagu eguraldiaren berri emateko eta, adibidez, egun batean kostaldeari buruzko komentario bat egiten duzu eta barnekaldekoak kexatzen dira.

Abestirik gustukoena?

Los Ramones taldea asko gustatzen zait, beraz, talde honetako edozein abesti.

Zein da zure libururik gogokoena?

Paulo Coelhoen *Alkimista*-k gogoeta egitera bultzatu ninduen.

Eta film bat? Batez ere, pelikula erromantikoak atsegin ditut.

Bat aipatzeagatik, *La vida es bella*.

Zein leloekin egiten duzu bat?.

Nik uste, egunero gauza txikietan ilusioa jarri behar dela.

Zertan edo norengan sinesten duzu? Nire buruarengan.

Zerbaitekin damutzen zara?

Gauza askorekin, baina azken finean denetik ikasi behar dugu.

Zerk ematen dizu beldurra?

Ekaitzak, indarkeriak... Azken baten, minak.

Nork edo zerk egiten zaitu zoriontsu?

Alabek, senarrak... oro har, familiak. Ah! Eta surf egiteak. m

ANA URRUTIA- Bilbon jaioa, gaur egun Algortan bizi eta Bakion gustura dabilen ETBko kazetaria da. Hogeita hamar urterekin, gaur egun, eguraldi albistegiaren aurpegi polita dugu surfer amorratu hau. Orain zazpi hila-bete bere bigarren alabaren jaiotza ospatu zuen. ETBk Hego Amerikarako egiten duen albistegia berriz ere aurkeztuko du aurten eta, gainera, bere tesi doktora ere amaitu nahi du.

Tapia eta Leturia

“Hain zuzen” diskoaren aurkezpena

+ Pomada (Katalunia)

Algortako Getxo Antzokian, 22:00etan
azaroak 30, larunbata

sarrera: 6€

